

GERRATIK EKITATERA: GATAZKA ARMATUEN ETA DESPAREKOTASUN EKONOMIKOAREN MURRIZKETAREN LOTURAK AZTERTZEN

Gradu Amaierako Lana

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea

Gradu Bikoitza

2023/2024 Ikasturtea

Egilea: Asier Idoiaga Zabala

Zuzendaria: Ernesto López Losa



AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. DESPAREKOTASUN EKONOMIKOAREN BILAKAERA.....	3
a) 1820-1910 aldia.....	4
b) 1910-1980 aldia.....	5
1. Taula: Desparekotasun ekonomikoa adierazle ezberdinen arabera: Klaseen portzentajeak, Goi/Behe klaseen ratioa eta Gini Indizea.....	6
c) 1980-2020 aldia.....	7
1. Grafikoa: Gini Indizearen bilakaera 1820-2020 aldian.....	9
3. IDEIA POLITIKOEN ERAGINA DESPAREKOTASUN EKONOMIKOAN.....	9
a) Plutokrazia estatubatuarra.....	11
b) Europako nazionalismo eta populismoa.....	13
4. KONBERGENTZIA ETA DIBERGENTZIA INDARRAK.....	15
5. GATAZKA ARMATUEK SORTZEN DITUZTEN INDAR KONBERGENTEAK.....	18
a) Fenomeno Inflazionisten Agerpena.....	19
b) Kapital Fisiko edo Materialaren Suntsipena.....	21
2. Taula: Aberastasunaren Suntsipena Britania Handian Lehen Mundu Gerran.....	23
3. Taula: Aberastasunaren Suntsipena Britania Handian Bigarren Mundu Gerran (milioi eurotan).....	24
c) Lehia Askearen Aurkako Gobernu Erregulazioak.....	25
1. Japonia (1939-1945).....	26
2. Alemania (1930-1945).....	27
3. Estatu Batuak (1941-1945).....	30
4. Britainia Handia (1939-1945).....	31
d) Langabezia-Mailen murrizketa.....	33
e) Politika Fiskal Progresiboak.....	36
f) Aberastasunaren edo Ondareen Gaztetzea.....	38
6. DESPAREKOTASUN EKONOMIKOA GATAZKA ARMATUEN SORRERAN.	40
a) Mundu gerra aurreko desparekotasuna.....	41
4. Taula: Gini koefizienteak Lehen Mundu Gerran parte hartze nagusia izan zuten herrialdeetan.....	42
5. Taula: Errenta fiskalaren gorenean kokatzen den %1aren errenta totalarekiko pisua Lehen Mundu Gerran parte hartze nagusia izan zuten herrialdeetan.....	42
6. Taula: Britania Handian, EEUUn eta Frantzia aberastasunaren gorenean dagoen %1aren aberastasunaren kontzentrazioa, aberastasun totalarekiko.....	43
b) Inperialismoa.....	43
7. AZKEN GOGOETA.....	46
2. Grafikoa: Material belikoaren esportatzaile nagusiak mundu mailan.....	48
8. BIBLIOGRAFIA.....	50

1. SARRERA

Desparekotasun ekonomikoak, multzo baten barnean, adibidez gizarte, herrialde edota herrialdeen artean dagoen, ondasun, diru sarrera zein errenten arteko aldeari egiten dio erreferentzia¹. Fenomeno honek, indar handia hartu du gaur egungo gizartearen elkarrizketa gaietan. Izan ere, azken 40 urteetan, 1980-90 aldera hasi zen iraultza ekonomikoari esker, aberatsenak are aberatsago bihurtu diren bitartean, erdiko klasea delakoaren egoera ekonomikoa, nahiko konstante mantendu da, edo are okerrago. Hori dela eta, gobernu ugari, politika birbanatzaileak aplikatzen saiatu diren arren, oraingoz ez da nahikoa izan tendentzia hori geratzeko.

Historiari begirada bat emanez gero, gertaera ezberdinen arabera desparekotasun ekonomikoak joera gorakorrek zein beherakorrek izan dituela ohartuko gara, eta gorabehera horien zergatiak zein inflexio puntu nagusiak identifikatzeari ekingo diogu lehen puntu batean. Zergatiaz hitz egitean, arrazoi edo indar ekonomikoak eta politikoak ezberdinduko ditugu, desparekotasun ekonomikoaren jarreran azken hauek, indar politikoak, izango direlarik indar ekonomikoak aktibatuko dituztenak. Indar ekonomiko hauek, konbergenteak edo dibergenteak izango dira, desparekotasun maila haztea edo leuntzea eragingo dutelarik. Era berean ohartuko gara, desparekotasun ekonomikoak ez soilik mantentzeko, baizik eta areagotzeko marko zabala daukala gaur egun.

Beraz, desparekotasun ekonomikoaren bilakaera historikoa eta horrek hartu dituen norabide ezberdinak identifikatu eta azaldu ondoren, desparekotasunak pasadan mendean bizitako inflexio puntu nagusiaren azterketari ekingo diogu, ondorengo galderari erantzun ahal izateko: Gerrak zerikusirik izan al dezake desparekotasun ekonomikoaren murrizketan?

Lehen begi-kolpean, planteamendu hori, nahiko kontraesankorra izan daiteke, gatazka armatuak erabateko suntsipenarekin eta ondorengo pobreziarekin lotzen baldin baditugu. Hala ere, lan honen bitartez, gerrek birbanaketa ekonomikoarekin dituzten loturak aztertzen saiatuko gara. Dena den, kontu handiz landu beharreko gaia da hau, aldez aurretik aitortu behar direlarik gerrak edozein gizarteri dakarzkion ondorio gizatiar zein etiko negatiboak. Gatazka armatuek irauten duten aldian, zein hauek bukatzen direnean, bizitako suntsipena, bizitza galera eta sufrimendua ez dira inola ere

¹ ACNUR. (2023). *¿Qué es la desigualdad económica y por qué se produce?*. https://eacnur.org/es/blog/desigualdad-economica-que-es-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst

justifikagarriak. Horregatik, azterketa honetan babestuko diren zenbait ideia gerraren ondorio positibo izan daitezkeela dirudien arren, horiek ezin dute inola ere sufrimendu guztiaren zati txikiena ere konpentsatu.

Gatazka armatuek aberastasunaren eta diru sarreraren birbanaketan eragina dutela baieztatzeko, ekonomialari ezagun askoren teoria ekonomikoak aipatzeaz gain, kasu historiko ezberdinak aztertuko ditugu, batez ere, lehen bi mundu gerretako herrialde beligeranteenen kasuak. Hau da, azterketa egokiena egiteko, ikuspegi akademiko zein ebidentzia historikoaren ebaluazio sakonean oinarrituko gara, suntsipen totalaren eta ekitate ekonomikoaren gure ideia konbentzionalei aurre egiten dien fenomeno konplexu hau argitze aldera.

Azkenik, ordena irauliko dugu, zenbait egilek defendatzen duten hipotesia ikertuko dugularik. Hipotesi horren arabera, aberastasunaren eta diru sarreraren ekitate ezak, edo beste modu batera esanda, desparekotasun maila handi batek, mundu mailako gatazkak eragin ditzake. Horretarako, mendebaldeko potentzien fase inperialista aztertuko dugu, eta nola potentzia guzti horiek lehen mundu gerra sortu ahal izan zuten, berriro ere, hipotesi guzti horiek ebidentzia historiko zein ideia akademiko oinarrituenetan babestuz.

2. DESPAREKOTASUN EKONOMIKOAREN BILAKAERA

Historiari begirada bat emanez gero, ikusi genezake desparekotasun ekonomikoa beti existitu izan dela, baina bereziki esanguratsua izan dela industria iraultza gertatu zenetik. Horren arrazoa beharbada, Branko Milanovic-ek adierazten duen ideia batean egongo litzateke, zeinaren arabera, industria iraultza baino lehen, diru sarreraren mailaren eta desparekotasun ekonomikoaren artean loturarik ez zegoen arren, horiek aldaketak jasaten zituzten gertakari ezberdinen ondorioz, besteak beste, epidemiak, gerrak, edo onura ekonomikoak ekar zitzaizketen lurralde berrien aurkikuntzak². Dena den, industria iraultzak aipaturiko lotura hori sortu zuenez, desparekotasunak 1820-2020 aldian izandako jarreraren analisiari ekingo diogu.

Fenomeno honen nondik norakoak aztertzeko, errentaren arabeko banaketa bat erabiliko dugu, 3 multzo ezberdinduak ditugularik: munduko errentaren goialdean kokatzen den %10a (goi klasearen izenpean aztertuko dugu), munduko errentaren

² MILANOVIC, B. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. 66.or.

behealdean kokatzen den %50a (behe klasearen izenpean aztertuko dugu) eta gainerako %40a (klase ertainaren izenpean aztertuko dugu). Hiru klase horiek 1820-2020 aldian izandako munduko errenta totalaren kuota nahiko egonkorra izan arren, zenbait momentutan aldaketak jasan dituzte. Horrela, goi klasearen kuota %50-60 inguruan mantendu den bitartean, klase ertainaren kuota %33-42 artean finkatu da eta behe klasearena %5-15 artean³. Egonkortasun handi bat identifikatu daitekeen arren, hiru alditan banatuko dugu desparekotasun ekonomikoaren bilakaeraren azterketa.

a) 1820-1910 aldia

1820-1910 artean koka genezake industria iraultzaren ondoriozko desparekotasun ekonomikoaren hazkundearen lehen aroa. Epe horretan, goi klaseak munduko errentaren gain zeukan pisua areagotzea lortu zuen 10 puntutan, munduko errenten %60a klase honi egokituz. Aldiz, klase baxuak gogorki sufritu zuen garai hartan, haren kuota erdira murriztu baitzen, 1820an munduko errenta totalaren %14a suposatzen zuen bitartean, 1910 aldera %7 ingurura jaitsi zelarik. Denbora horretan egonkorren mantendu zen klasea, klase ertaina izan zen, nahiz eta haien errenten zenbatekoak puntu gutxi batzuk galdu. Hortaz, ikusi genezake aldi horretan industria iraultzak ekarri zuen ekonomiaren garapenak, desparekotasun ekonomikoaren izugarritzko nabarmentzea eragin zuela, goi klasea beste bi klaseekiko nabarmendu baitzen. Honen erakusle da, 1820. urte aldera goi klasearen batezbesteko errentak behe klasearenak baino 18 aldiz handiagoak ziren bitartean, 1910. urterako, 41 aldiz handiago izatera iritsi zirela⁴. Gini indizea bere aldetik, izugarri handitu zen fase horretan, 0,12 puntutan hain zuzen, 1820an 0,60an kokatzen zen bitartean, 1910. urterako 0,72-ra igo baitzen⁵.

Lehen aro horretan, mundu mailako desparekotasun hori herrialdeen arteko desparekotasunean oinarritu zen. Industria iraultza mendebaldeko Europan hedatu zen lehen momentu batean, herrialde ez garatuekiko aldea areagotuz. Izan ere, garai hartako iraultzak ekarritako aurrerapen teknologikoez, herrialde haien ekonomiak suspertu zituen, kapitalismoaren errendimendua hobetuz. Aurrerapen hauei esker, ekoizpenean

³ CHANCEL, L. (2022). *World Inequality Report 2022*. 54.or.

⁴ *Ibidem.*, 55.or.

⁵ *Ibidem.*, 56.or.

dibergentziak sortu ziren, mendebaldeko herrialdeak erlatiboki bizkorrago haziz, eta herrialde arteko desparekotasuna areagotuz⁶.

Industria iraultzarekin, soldata oro har, diru sarrerekiko proportzionalki igo zen, zenbait momentutan gehiago ere. Garai hartako desparekotasun ekonomikoaren jarrera, Milanovic-ek bi ondoriotan oinarritu zuen. Alde batetik, diru sarrera handiagoek, espazio gehiago sortu zuten desparekotasun hori sortzeko, hau da, suposatuz pertsona orok gutxieneko diru sarrera kopuru bat behar duela gizarte baten barruan irauteko, muga horretatik gorako diru sarrera zenbat eta handiagoa izan, orduan eta desparekotasun handiagoa eragin zezakeen. Fenomeno honi, desparekotasunaren aukeren muga bezala ezagutzen zaio. Bigarren ondorio bezala, bi faktoreren agerpena litzateke desparekotasunaren eragile, alde batetik, industria sektorearen dibertsifikazioa, eta, bestetik, urbanizazioaren hazkundera.

b) 1910-1980 aldia

Pasadan mendek lehen hamarkadaren bukaeratik 80ko hamarkadara arte, esan genezake munduko errenta totalaren gain klase altuaren errentek pisua galdu zutela. Hala ere, fenomeno hau ez zen klase baxuaren mesederako izan, azken klase horren errentaren kuotak ere murrizten jarraitu baitzuen, baina neurri txikiagoan. Klase ertaina izan zen garai hartan indartuko zena, iraultza teknologiko berriari hasiera eman zitzaionera arte. Dena den, klase altu eta baxuaren arteko erlazioak areagotzen jarraituko zuen hamarkada berdinerara arte, orduan, klase altuaren batezbesteko errentak, baxuarenak baino 53 aldiz handiagoak izatera iritsi baitziren. Esan genezake hortaz, klase altuak, baxuak baino gutxiago sufritu zuela, nahiz eta biek indarra galdu bigarren aro honetan. Gini indizeari dagokionez, gerra eta gerren arteko garaietan asko murriztu zen arren, 60ko hamarkadatik aurrera berreskuratzen hasi zen berriro ere, 1980. urtean 0,7a gainditzea lortu zuelarik⁷.

Bigarren fase honetako desparekotasun ekonomikoa berriro ere herrialdeen arteko desparekotasunean oinarritu zen. Herrialdeen barneko desparekotasunak behera egin zuen, neurri handi batean, momentuko gertaera belikoei eta horien ondorioei esker. Bestalde, garai honetan, herrialde garatuaren gastu publikoa gogorki hazi zen, baita zergapen progresiboaren aldeko politikak ere. Esan bezala, herrialdeen arteko

⁶ NUDELSMAN, S. (2022). *Global Inequality in the current era*. 13.or.

⁷ CHANCEL, L. (2022). *World Inequality Report 2022*. 54,55,56.or.

desberdintasunak gora egiten jarraitu zuen biziki, mendebaldeko herrialdeen aurrerapen teknologikoei esker beste behin ere, 80ko hamarkadan joera drastikoki alderantzikatu zen arte, jarraian ikusiko dugun bezala⁸.

Milanovic-en arabera, diru sarreren igoeraren eta desparekotasun ekonomikoaren arteko erlazio hori murriztu egin zen joan den mendeko lehen bi hamarkaden artean 2 faktore nagusi zirela eta, alde batetik, lan indar heziago baten eskaintza zabala, eta bestetik lehen mundu gerra. Ekitate ekonomiko ezak jasandako beherakada honek 1980ko hamarkadara arte iraungo zuen gutxi gora behera, orduan hasi baitzen iraultza berria, oraingoan teknologikoa. Iraultza honek aldaketa sakonak ekarri zituen teknologian, informatikan eta globalizazioan, zerbitzu sektorea indartzeaz gain. Teknologia berrien bitartez, lan espezializatuenak saritu ziren, ekonomia aberatsenak mundura zabaldu, Txina eta India bezalako herrialdeei aurre egiteko, eta aberatsentzako mesedegarri ziren hainbat politika ere martxan jarri ziren.

Laburbilduz, dirudi 1910-1980 urteen arteko aldi honetan desparekotasun ekonomikoa nahiko konstante mantendu zela, eta klase altu eta baxuaren arteko desparekotasunaren erlazio hori nahikoa handitu zela. Hala ere, baieztapen hau soilik litzateke onargarria garai hura bere osotasunean hartuko bagenuke. Izan ere, grafikoei erreparatuz gero, ohartuko gara joera gorakorra ebakitzen duten bi momentu argi daudela, ondorengo taulan ikusi genezakeen bezala:

1. Taula: Desparekotasun ekonomikoa adierazle ezberdinen arabera: Klaseen portzentajeak, Goi/Behe klaseen ratioa eta Gini Indizea.

	Goi Klasearen %	Erdi Klasearen %	Behe Klasearen %	Goi/Behe klasearen ratioa	Gini Indizea
1910	60	33	7	42	0,72
1920	60	32	8	39	0,71
1930	57	37	6	38	0,68
1940	56	38	6	46	0,70
1950	55	38	7	40	0,69

⁸ *Ibidem.*, 57.or.

	Goi Klasearen %	Erdi Klasearen %	Behe Klasearen %	Goi/Behe klasearen ratioa	Gini Indizea
1910	60	33	7	42	0,72
1920	60	32	8	39	0,71
1930	57	37	6	38	0,68
1960	54	40	6	37	0,68
1980	57	38	5	53	0,71

Chancel (2022), 54,55,56.or.

Taula aztertzean, 1910-1980 aldiak 4 azpi-etapa, bi goranzko eta bi beheranzko, dituela ikusiko dugu, goi eta behe klasearen arteko ratioari eta Gini indizeari dagokienez. Beheranzko bi etapak, 1910-1930 eta 1940-1960 urteen artean gertatzen dira, honenbestez, lehen bi mundu-gerrekin eta horien ondorengo ondorioekin identifika daitezke. Bestalde, bi indizeetako hazkunde aldiak oparotasun garaiekin identifikatzen dira, 30eko hamarkadan eta 60ko hamarkadatik aurrera bizi izan zirenak. Beraz, gerrek desparekotasun ekonomikoan izan dezaketen eragina ikus daiteke, dena den, beranduago sakonduko dugu honetan.

c) 1980-2020 aldia

80ko hamarkadatik aurrera joera aldatu eta ziklo berri bati hasiera eman zitzaiola esan genezake. Klase altu eta baxuaren errentak indarra hartzen hasi ziren munduko errenta totalarekiko, klase altuari dagokionez mende berrian sartu arte eta klase baxuari dagokionez ordea, gaur egunera arte. Hori dela eta, 2020an, klase altuak batez beste 38 aldiz errenta handiagoa zuen klase baxuarekiko, jaitsiera nabarmena 1980ko hamarkadako datuekin alderatuz gero. Klase ertainari dagokionez, haren errentek 2000ko hamarkadara arte sufritu ostean, mende berriarekin berreskuratzen hasi ziren. Desparekotasun ekonomikoa neurtzen duen Gini indizeari dagokionez bestalde, 2000. urtean 1910ean bezala kokatu ostean, hau da 0,72an, izugarritzko jaitsiera bizi izan du 2020. urtera bitartean, 0,67an kokatu delarik⁹.

Azken fase honetako joeraren arrazoia, alde batetik, munduko finantza krisiak herrialde aberatsenetan izandako eraginari esker azal daiteke, eta bestetik

⁹ *Ibidem.*, 54,55,56.or.

Latinoamerikako eta Afrikako herrialdeen hazkunde azkarrari esker, “commodity-boom” delakoan oinarriturik. Era berean, herrialde populatuenen industrializazio azkarrak, hala nola, Txina, India edo hego Asiako beste zenbait herrialde, funtsezko faktore izan dira munduko errentaren konbergentziarako. Honela, globalizazio handiaren aro honek eragindako per capita errentaren hazkundeak, 3 ezaugarri garrantzitsu eragin ditu: Klase ertain globalaren sorrera, Txina eta Asia hego-ekialdeko beste herrialde batzuetan kokatua neurri handi batean, plutokrazia globalaren hazkundera, eta herrialde garatuenetako sektore askoren errentagarritasuna, herrialde horietako klase ertainei dagokiena¹⁰.

Globalizazioak era berean, prezioak merkatzeke aukera eman die bai herrialde aberatsei zein herrialde emergenteetako kontsumitzaileei. Azken hauek munduko ekoizpen katean sartzeak, eskulan merkeago baten eskaintza eragin du, enpresa mendebaldar ugari deslokalizatu direlarik, sarritan oso kritikatu izan den faktorea, baina egiatan, prezioak merkatzea eta honekin desparekotasun ekonomikoa murriztea lagundu duena. Deslokalizaziorako funtsezko beste faktore bat, teknologiaren agerpena izan da, hala, telelana funtsezko faktore bihurtu da, nahiz eta askorentzat funtzionatzen ez duen, adibidez, pobreentzat¹¹.

Garai honetan lehen aldiz, herrialdeen arteko desparekotasun ekonomikoak behera egiten du, eta herrialdeen barnekoa areagotu da. Honen arrazoia globalizazioa bera izan da, horrek aukera eman baitie gutxien garatutako herrialdeei mendebaldeko ezagutzak menderatzeko. Horri esker, Txina edo India bezalako herrialdeak, erraldoi ekonomiko bihurtu dira, munduko sistema politiko eta ekonomikoa kolokan jartzeko gaitasuna bereganatu dutelarik.

Laburbilduz, industria iraultzatik gaur egunera arte, 3 fase bizi izan ditu desparekotasun ekonomikoak.


1. Lehen fase gorakor bat, 1820-1910 urteen bitartean, batez ere herrialdeen arteko desparekotasunean oinarritua eta mendebaldeko herrialdeen aurrerapen teknologikoei esker gertatu izan dena.

¹⁰ NUDELSMAN, S. (2022). *Global Inequality in the current era*. 14.or.

¹¹ BASALLÓ, A. (2023). “La globalización ha permitido que se reduzca la desigualdad”, afirma el economista Fernando Fernández. *Nueva Revista*. <https://www.nuevarevista.net/la-globalizacion-ha-permitido-que-se-reduzca-la-desigualdad-en-el-mundo-afirma-el-economista-fernando-fernandez/>

2. Bigarren fase nahasi bat, herrialdeen arteko desparekotasunean oinarritua baita ere, 1910-1980 urteen artean, lehen erdian desparekotasun ekonomiko beherakor batekin, gerra eta gerraoste egoeretan oinarritua baina berpizkunde aro pare batekin 30eko hamarkadan eta 1960ko hamarkadatik aurrera.
3. Azken fasea, iraultza teknologiko eta globalizazio aroan murgildua, 1980-2020 bitartean, lehen erdian gorakorra, eta bigarrenean beherakorra, non nahiz eta herrialdeen barneko desparekotasuna areagotu, herrialdeen artekoa murriztu den, batez ere, Asiar ekonomien garapenari esker eta klase ertain global baten sorrerarekin.

1. Grafikoa: Gini Indizearen bilakaera 1820-2020 aldian.



Chancel (2022), 56.or.

3. IDEIA POLITIKOEN ERAGINA DESPAREKOTASUN EKONOMIKOAN

Desparekotasun ekonomikoaren jarrera historikoa aztertu ondoren, haren norabideen zergatiak ezagutzea komeni da. Fenomeno honen arrazoiei dagokienez, Thomas Piketty-k adierazten du horren gorabeherak ezin direla mekanismo ekonomiko hutsetan laburbildu, baizik eta aberastasunaren banaketak arrazoi politikoak jarraitzen dituela beti. Honela, ondorioztatzen du ez dagoela berdintasunezkoak ez diren joera edo tendentzia horiek etengabe gailentzea ekidin dezaketen prozesu naturalik, eta

banaketa dinamika horiek bultzatzen dituzten mekanismoak direla aberastasuna konbergentziaren edo dibergentziaren zentzuan bultzatuko dutenak¹².

Piketty-ren ideia honen inguruan garatu ahal izateko, komenigarria litzateke ulertzea nola edo zergatik aplikatzen diren konbergentzia zein dibergentzia mekanismo horiek politika ezberdinen bitartez. Hori dela eta, gure egungo mundu kapitalista honetan teorikoki gailentzen den baina praktikan urratzen den sistema baten inguruan arituko gara jarraian, kapitalismo demokratikoa. Hau da, desparekotasun ekonomikoaren jarrerak ulertzeko, egun zein mundu kapitalista garaikidean nagusi izan den sistema honen nondik norakoak aztertzea komeni dela deritzogu, nahiz eta praktikan, esan bezala, sistema beraren printzipioak urratzen diren. Branko Milanovic-en arabera, kapitalismoa eta demokrazia kontzeptuak ezberdindu izan dira historian, hainbat erregimen kapitalista, ez demokratiko izan baitira, Espainia frankista esate baterako.

Praktikoki, bi kontzeptu independente horiek desberdintzea ahalbidetzen digun fenomeno argienetarikoa bat desparekotasun ekonomikoa bera litzateke. Lehen puntuan, desparekotasunaren bilakaeraren inguruan hitz egitean, adierazi dugu azken fase honetako desparekotasun ekonomikoa, hau da, iraultza teknologikotik aurrera gertatutakoa, herrialdeen barneko desparekotasunean oinarritu dela. Herrialdeen arteko desparekotasuna jaistearren arrazoia, hirugarren mundua delakoaren gutxitzean legoke, haiek mendebaldeko teknologiak garatzen joan baitira. Aldiz, jada garatuta dauden mendebaldeko herrialdeetako barne desparekotasuna areagotzen ari da azken urteotan, aberatsenak are indartsuago bihurtu baitira, eta zentzu handi batean, gakoa, kapitalismo demokratiko faltsu horretan egon liteke.

Kapitalismo eta demokraziaren banaketa, zuzenean lotu genezake klase ertainaren gutxitzearekin, eta aldi berean, goi klasearen indarraldiarekin, desparekotasun ekonomikoaren fenomeno sortuz. Klase ertainak indarra galdu du azken urteotan, ez baita hain ugaria ezta hain indartsua. Klase honek kontsumitutako produktuek ekoizleentzako zeukaten garrantzia ere galdu dute, ekonomikoki gorago kokatzen den merkatuari mesede eginez, eta ondorioz, merkatu horretan kokatzen den goi klaseari.

¹² PIKETTY, T. (2014). *El Capital en el siglo XXI*. 36.or.

Klase ertainaren botere galera horren arrazoia, eragin sozial eta politiko ezberdinetan oinarritzen da, jarraian aztertuko dugun bezala¹³.

Alde batetik, azken urteotan klase ertaineko kideen kopuruak behera egin duenez, gizarte zerbitzuen hornidura publikoa ere murriztu da, hala nola, hezkuntza edo osasun zerbitzuetan egindako inbertsioetan. Aberatsek zerbitzu pribatuen alde egiten dute hezkuntza eta osasunari dagokienez, eta klase ertainak langile kopurua galdu duen heinean, indarra ere galdu izan du politikariak zerbitzu horiek finantzatzera behartzeko unean. Bestalde, goi klaseak nahiago ditu baliabide horiek beste zerbitzu batzuetan inbertitzea, hala nola segurtasunean. Hori dela eta, hezkuntza zerbitzuetara bideratzen den zenbatekoa murriztu egiten da, desparekotasun ekonomikoa areagotuz, hezkuntza ezinbesteko indarra baita desparekotasun horren gutxitze aldera, beranduago ikusiko dugun bezalaxe. Bestalde, klase ertain eta altuaren arteko gizarte separatismoak eta lehenengoaren indar galtzeak, ondasunen ekoizpena luxuzko ondasunetara aldatzea eragin izan du, esan bezala, aberatsenei mesede eginez¹⁴.

Azken finean, ikus dezakegu sistema politikoak demokratiko izenpean jarraitu arren, egiatan ez dituela demokraziaren ezaugarriak betetzen, eta horretatik urruntzen ari garela. Mendebaldeko mundu kapitalistari dagokionez esaterako, urruntze hori bi modutara gertatu dela esan daiteke, alde batetik estatu batuetan plutokraziaren bidez, eta bestetik, populismo eta nazionalismoen bitartez estatu europarretan.

a) Plutokrazia estatubatuarra

Estatu Batuen kasuan, ikusi genezake politikarien eta enpresarien arteko aldea lausotzen joan dela batez ere bigarren mundu gerraz geroztik. Hautatzen diren politikari berri gehienak, sektore pribatukoak dira, hau da, ez dute inolako esperientziarik arlo publikoan, eta estatuko enpresa nagusien goi karguak dira. Beraz, enpresa eta arlo politikoaren harreman hori interes ekonomikoei besterik ez dagokie, eta nabarmena da estatuko kargu publiko horiek aldi baterakoak tramiteak besterik ez direla haientzat. Ipar Ameriketako harreman hau, Michael Useem-en arabera, 3 erakunde mota ezberdinekin lotzen da¹⁵.

¹³ MILANOVIC, B. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. 222, 223, 224.or.

¹⁴ *Ibidem.*, 224.or.

¹⁵ SEGOVIA, A.; QUIRÓS, F. (2006). *Plutocracia y corporaciones de medios en los Estados Unidos*. 185.or.

Alde batetik, gobernu agentziak daude, lurralde eremu ezberdinetan jardun izan ohi dutenak, maila lokaletik, maila federalera arte. Agentzia horien esku hartzeko lehentasunak ezberdinak izan arren, batez ere merkataritza, defentsa, barne edo altxor sailetan zentratzen dira. Gobernu agentzien buruzagi edo goi kargu horiek, goi mailako funtzionario gisa betetzen dituzte beraien eginkizunak, gehienetan, lanaldi osoko kargu gisa, baina badira batzar ezberdinetako kontseilari gisa jarduten dutenak ere, beraien enpresan negozio funtzioak betetzeari uko egiten ez diotelarik¹⁶.

Beste alde batetik negozio elkarteak ditugu, zeintzuek beraiantzat mesedegarri izango diren politika publiko gehienak definitzerako orduan ezinbesteko papera jokatzeko duten. Negozio elkarte hauek, bi modutara jokatzeko dituzte beraien eginkizun politikoak, bata kanpora begira, eta bestea, barrua begira. Lehenengoari dagokionez, iritzi publikoan eragin dezaketen kanpainen bidez, presio politikoaren bidez, edo *lobbying* izenez ezagutzen diren politiken bitartez garatzen dituzte eginkizunak. Bigarrenean aldiz, enpresa etekinak lortzean oinarritzen den arren, ez da presio tekniko erabiltzen, baizik eta interes erlazioan edo kohesionatuak bilatzen dira, aldebiko irabaziak lortzeko, bai gizartearentzat zein negozio elkarteentzat¹⁷.

Azkenik, Useem-ek Gobernu Kanpoko Erakundeak aipatzen ditu. Horiek, ezinbesteko faktore bihurtzen baitira ezagutzak zein ideologia menderatzailea sortze eta batez ere mantentze aldera, hau da, klase gorenei mesede egiten dien harreman korporatibo-politiko horri euste aldera. Hori dela eta, ez da harrizkoa korporatiboak, fundazioetan, kultur elkarteetan zein Estatu Batuetako unibertsitateen onenetan ere parte hartzen dutela ikustea. Honek, bizitza politikoan erabakiak hartzean parte hartzeko gaitasun eta eragin handiagoa izatea dakar, betiere helburu berdinarekin, bere buruarentzako irabaziak sortzea.

Hortaz, Estatu Batuen kasuan, harremana aztertu ondoren ikus genezake hautatuak izan diren funtzionarioek aberatsen beharrei erantzuten dietela sinestea legezkoa dela. Hala ere, horrez gain, enpresa nagusi hauek demokrazia deuseztatzea lortzen dute, klase baxuenen botoa ezabatuz eta horiengan kontzientzia faltsu bezalako bat lortuz. Alde batetik, hauteskundeetako parte hartzeari erreparatuz gero, ikusi genezake goi klaseko gizabanakoen parte hartzea handiagoa dela klase ertain eta baxuko gizabanakoena baino. Hau ustekabekoa suerta liteke, suposatzen baita beraien egoera

¹⁶ *Ibidem.*, 186.or.

¹⁷ *Ibidem.*, 186.or.

hobetu behar dutenak azken hauek direla, goi mailakoak izan ezik. Dena den gertaera hau testuinguruan jartzea komeni da, arrazoiak ulertu ahal izateko, azken finean klase baxuenek botoa emateko izan ditzaketan zailtasunetan oinarritzen dena. Dena den, fenomeno honi beste bat gehitu beharko litzaioke, hain zuzen ere, kontzientzia faltsuarena. Izan ere, hauteskunde programa batean, eguneroko bizitzako esparru asko aipatzen dira, ez soilik esparru ekonomikoa. Hori dela eta, goi klaseko gizabanakoek difusio bitartekoak kontrolatzen dituztenez, horietaz baliatzen dira gainerako klaseek beraien botoa aukera dezaten, ekonomikoa ez diren faktoreen arabera, erlijioa esate baterako¹⁸. Izan ere, komunikazio enpresa hauek multimediaren konglomeratu handiak bihurtu dira jada, eta dagoeneko estatuko korporazio handien artean kokatzen dira. Peter Dreier-en ikerketa baten arabera, korporazio hauek, beste sektore askotako enprekin erlazionatzen dira. Honen adibide dira ikertutako 24 egunkari kate, elitearen barnean kokatzen diren 447 korporazioekin lotuta zeudela. Horrez gain, beste 97 egunkari kate, 15 negozio elkarte garrantzitsuenekin erlazionaturik zeudela aurkitu zen, eta beste 24, 12 unibertsitate pribatu ospetsuenekin¹⁹.

Honekin guztiarekin, eliteek, ekonomikoki egoera kaskarragoan daudenen botoa ezabatzea lortzen dute, azken finean, funtzionario hautatuek aberatsen beharrei erantzun diezaieten. Honek, plutokrazia egoera hau sortzen du, hau da, gutxiengo batek gidatzen edo gobernatzen duen gizartea, elite ekonomikoa hain zuzen²⁰. Kapitalismo demokratikoa betetzen dela baieztatu daitezke kasu honetan?

b) Europako nazionalismo eta populismoa

Bestalde, Europako demokraziak ditugu. Europar sistema politikoa, alderdi anitzekoa da, eta ez dago diruaren eraginari hain loturik, aldebiko estatubatuar sisteman gertatzen den bezala, hala ere, beste arazo batzuk ditu. Globalizazioa, fenomeno batzuei esker antzematen da, hala nola, inportazioei, kapital irteerei eta migrazioari esker. Azken honek Europari zailtasun politiko dezente sortzen dizkio, politika alderdi nazionalista eta populistetarantz eboluzionatuz.

¹⁸ MILANOVIC, B. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. 227-230.or.

¹⁹ DREIER, P. (1982). *The Position of the Press in the U.S Power*. 302.or.

²⁰ MILANOVIC, B. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. 227-230.or.

Alderdi populistei ematen zaien gizarte babes hori, autore gehienen arabera, 2 arrazoi nagusitan oinarrituko litzateke, beraien artean elkar loturik daudenak, globalizazioa eta desparekotasun ekonomikoa hain zuzen. Hauek biak, krisi ekonomiko aldien aurrekoak izaten dira normalean, hala ere, krisi garaietan areagotu egiten dira²¹.

Alde batetik globalizazioa dugu, joan den mendeko 80. hamarkadatik gaur egunera arte izugarri hazi dena, eta ondorio ekonomiko garrantzitsuak izan dituena. Ekoizpen aldetik, globalizazioa bera gabe egingo zukeena baino gehiago hazi da, globalizazio horri esker lorturiko eraginkortasunaren ondorioz. Beste ikuspegi batetik, ondorio garrantzitsu eta positiboak izan ditu errentaren banaketan, izan ere gutxi garatutako ekonomien pisua handitu egin da ekonomia globalari dagokionez. Bestalde, ondorio negatibo batzuk ere bizi izan dira, batez ere herrialde garatuetan, enpresa asko eskulan merkeago baten bila deslokalizatu direlako²².

Aipatutako ondoez sozialaren beste arrazoia, diru sarreraren desberdintasuna da. Sachs-ek adierazi zuen bezala, posible da diru sarreraren desberdintasunean oinarrituriko gizarte gatazka garrantzitsu batek erakunde zein gobernuak ahultzen laguntzea, gobernu populisten alde. Izan ere, politika populista horien pizgarriak, arazo sozialean oinarritzen dira, interes sektorialen banaketa sakonean eta diru sarreraren ekitate ezan hain zuzen ere²³.

Globalizazioaren ondoriozko migrazioaren arrazoi nagusia, zalantzarik gabe, herrialdeen arteko desberdintasun ekonomikoan datza. Europa, historikoki, nahiko eremu homogeneoa izan da etniei dagokienez, hortaz, gaur egun zailtasunak ditu jasotzen duen migrazio guzti hori asimilatzeke. Europar gobernuak bere aldetik, erru handia daukate, oso gutxi aztertu baitute fenomeno hori, eta beraz zaila egiten zaielako hura asimilatzeke neurriak hartzea. Bestalde, Europar biztanleek uste dute immigrante eta gizartearen arteko hartu emana, lehenengoan aldekoa dela, hau da, laguntza sozialei dagokienez gehiago jasotzen dutela, ordaintzen dutena baino, eta honek gatazkak sor ditzake²⁴.

²¹ SERRANO, J.M. (2017). *Crisis económica y populismos*. 13.or.

²² *Ibidem.*, 14.or.

²³ SACHS, J. (1989). *Conflicto social y políticas populistas en América Latina*. 237,254.or.

²⁴ MILANOVIC, B. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. 233-235.or.

Egia da eremu geografiko jakin batean homogeneousotasun handiagoa izateak mesede egiten diola estatu onesleari, sozietate hori osatzen duten kideek arau berdinen arabera jokatzeko dutela ulertzen baita. Bestalde, horrela ez bada, gizarte laguntza horiek mantentzeko unean estatu onesleak sufritu egiten du. Honi gainera, inportazioek sortzen duten lehia presioa gehituz gero, murrizketak egitera behartzen da estatua, azken finean, erdi eta behe klaseei eraginez. Hau da, estatu oneslea mantentzeko murrizketek, esate baterako hezkuntzan, gehiago eragiten diete klase baxuei, aurretik esan bezala klase altuenak zerbitzu pribatuetara zuzentzen baitira. Murrizketa horien ondorioz, klase baxu eta ertainak estatuaren babesa galtzen dute, eta honek haien ideia politikoengan aldaketa bat gertatzea eragiten du, eskuineko alderdien alde eginez, hau da, alderdi nazionalista eta populisten alde. Azken hauek, europar globalizazioa ahultzen dute, migratzaileen kopurua murriztuz, eta estatuen arteko desberdintasun ekonomikoa larriagotuz²⁵.

4. KONBERGENTZIA ETA DIBERGENTZIA INDARRAK

Aurrerago aipatu dugun bezala, Thomas Pikettyren arabera, desparekotasun ekonomikoaren funtsa arrazoi politikoetan oinarritzen da batez ere, eta ez mekanismo ekonomikoetan. Hala ere, erabaki politiko horiek dira mekanismo edo indar desberdinak jokoan jartzen dituztenak, batzuek mesede eginez aberastasunaren banaketa ekitatiboari eta beste batzuek aberastasunaren bidezko banaketa okertuz. Hau da, badira desparekotasun hori konbergentziarantz edo dibergentziarantz bultzatzen duten mekanismoak, baina baieztatu daitezke arrazoi politikoak direla indar horiek aktibatzen dituztenak, eta, beraz, desparekotasun ekonomikoa oinarritzen dutenak²⁶. Jarraian, mekanismo hauen zenbait adibide aztertuko ditugu.

Alde batetik, konbergentziaren alde egiten duten indarrak edo mekanismoak daude, hau da, desberdintasunak murrizten laguntzen dutenak. Piketty-ren arabera konbergentzia indar nagusienetariko bat, ezagutzen hedapena litzateke, hori dela eta, trebetasunak gaitzeko eta prestatzeko inbertsioa funtsezkoa bihurtzen da banaketa ekonomiko berdinzaleago bat lortze aldera. Horren adibide argi dira aurrerago aztertutako prozesu historikoak, non erreparatu genezakeen 1820-1920 aldian desparekotasun ekonomikoa hazi egiten dela, batez ere, mendebaldar herrialdeen eta munduko gainerako herrialdeen artean unean uneko ezagutza eta trebetasun teknologikoen arteko desberdintasuna izugarri handia baitzen. Bestalde, mende berrira

²⁵ *Ibidem.*, 236-240.or.

²⁶ PIKETTY, T. (2014). *El Capital en el siglo XXI*. 36.or.

sartu bezain laster, desparekotasunaren murrizketa sakona ikusi genezake, hein handi batean Txina eta India bezalako herrialde super populatuak eman duten aurrerapauso teknologikoari esker, erdiko klase global baten sorrera baimendu duena. Ezagutza eta trebetasunen hedapen horrek, kalitate jauzi bat eragiteaz gain, ekoizpenean ere salto handia egitea ahalbidetu du, hirugarren mundua osatzen zuten horiek, herrialde aberatsenen kualifikazio eta ekoizpen mailetara iritsi direlarik²⁷.

Piketty-k, dibergentzia indarrak ere aipatzen ditu, hau da, desparekotasun ekonomikoa haztea eragiten duten mekanismoak. Autoreak hemen aipatzen duen indar nagusia, kapitalaren errendimenduak hazkunde tasaren gainetik jarduten duen aldietan gertatzen den fenomeno litzateke, hau da, kapitalak urte oso batean sortzen duen etekina handiagoa denean diru sarreren eta ekoizpenaren gehikuntza baino. Honek esan nahi du, iraganean sorturiko aberastasuna, egungo diru sarrera eta ekoizpena baino azkarrago hazten dela. Hori dela eta, heredadutako ondareek gaintitu egiten dituzte bizi oso baten zehar lorturiko etekinak, desparekotasun ekonomikoa handituz beti aberats izan direnei mesede eginez. Gainera, aberastasun mailak gora egin ahala aurrezki tasa handiagoa izaten dela kontutan hartzen badugu, indar desegonkortzaile hori are larriagoa bihurtzen da, baina ez hori bakarrik. Izan ere, batezbesteko errendimendu tasa hasierako kapitalaren araberakoa izateak, gero eta fenomeno ohikoagoa, are eta larriagoa bihurtu dezake egoera, aberastasunak errendimendu altuagoak emango baititu etengabe²⁸.

Nahiz eta aurretik aipatu bezala ezagutzen hedapena indar konbergente gisa agertzen den orokorrean, teknologiaren inguruko ezagutza garatuek ere kontrako ondorioak sor ditzakete. Argi dago teknologiaren hobekuntzak, ekoizpen forma berri eta hobeagoek ordezkatuta, hazkunde ekonomiko handiagoa eragiten duela orokorrean, hala ere, hasiera batean ez dirudien arren, zenbait arazo edo ondorio kaltegarri sor ditzake aberastasunaren banaketan, “trebetasunak alboratutako aldaketa teknikoak” delakoaren hipotesiari erreparatuz gero. Izan ere, hipotesi horren arabera, azken hamarkada hauetan bizi izan dugun aldaketa teknologikoak langile kualifikatuen soldatei egin die mesede neurri handi batean, produktibitate erlatiboa handituz. Ordea, langile ez kualifikatuei egoera honek ez die mesederik egin, desparekotasun ekonomikoa areagotu delarik.

²⁷ *Ibidem.*, 36, 37.or.

²⁸ *Ibidem.*, 42.or.

Dena den, David Card bezalako ekonomista batzuen arabera, hipotesi honek zalantzak sortzen ditu denbora zein magnitudeari dagokionez²⁹.

Bestalde, oinarri berberetik abiatuz gero, hau da, teknologiatik abiatuta, hipotesi berri bat sortu izan da, beste behin, dibergentziari ere mesede egin diezaiokeena. Benjamin Moll bezalako ekonomistek defendatzen duten hipotesi hau, automatizazioarena da, zeinaren arabera, kapitalaren jabeek aurrerapen teknologikoei esker lorturiko etekina, langileen ordezkapenaren bitartez bete daitekeen, hau da, langileak kapitalaren truke ordezkatzuz. Teknologia berri horiek, pertsona fisikoek beteriko lanarekiko bateraezinak dira, kapitalaren jabeek etekinak maximotzea lagunduko diotelarik, besteak beste, langile horiei ordaindu beharreko soldata aurrezteko gai izango baitira³⁰.

Konbergentzia edo dibergentzia indar izan daitekeen beste mekanismo bat legeriarena da, azken hau oso politikoa. Zehazki, monopolioen aurkako legeriari buruz hitz egingo dugu jarraian, zeinek zenbait eta malguagoa izan, orduan eta desparekotasunaren aldeko ondorio gehiago dakartzan. Teoria honen defendatzaileek, hala nola De Loecker-ek, hainbat enpresa lortzen ari diren merkatu boterea azpimarratzen dute, batez ere sektore digitalean. Merkatu kuota eta ondoriozko botereari esker, marjina nabarmen handiagoak lor ditzakete, monopolioaren aurkako lege horiek baimentzen diotenaren arabera. Gainera, marjinen gehikuntza horiek, produktibitate agregatua murriztea ekar dezakete, eta horrek aldi berean eskulanaren behar txikiagoa dakar. Eskulanaren behar txikiago horrek era berean, soldata baxuagoak eragiten ditu, eta aberastasunaren banaketan alde handiagoak³¹.

Progresibitate fiskalaren mailak ere zeresan handia izan dezake aberastasunaren banaketan, mesede edo okerrera egitera begira, hori zenbait eta handiagoa izan, orduan eta ekitatiboagoa baita banaketa. Ekonomia askoren ustetan, kapitalaren gaineko zergak kaltegarriak dira inbertsiorako, eta ondorioz ekonomiaren hazkunderako. Bestalde, ebidentzia enpirikoak kontrakoa erakusten digu, murrizketa horiek eragin nahiko eskasa izan baitute inbertsio eta hazkunde ekonomikoan. Bestalde, herrialde askotan gertaturiko zergen progresibitatearen erorketa horrek, aberatsenei aurrezki

²⁹ BRUN, L.; GONZÁLEZ, I. (2022). *Crecimiento económico y desigualdad: viejas y nuevas teorías, e implicaciones políticas*. 148.or.

³⁰ MOLL, B. (2021). *Uneven Growth: Automation's impact on income and wealth inequality*. 1.or

³¹ BRUN, L.; GONZÁLEZ, I. (2022). *Crecimiento económico y desigualdad: viejas y nuevas teorías, e implicaciones políticas*. 150.or.

maila handitzea ahalbidetu izan die, beste behin ere desparekotasun ekonomikoari mesede eginez³².

Laburbilduz, aberastasunaren banaketa ekitatibo edo berdintsuari mesede egiten dioten zein hura kaltetzen duten mekanismoak daude, hala nola, abilezia ezberdinetan egindako inbertsioak edo progresibitate fiskala. Horien mailaren arabera, aberastasunaren banaketaren emaitza berdintzaileagoa izango da edo ez, konbergentzia indar gisa jardungo dutelarik batzuetan, eta ez beste batzuetan. Piketty berak adierazten du aberastasa metatzeko eta banatzeko prozesuak dibergentzia bultzatzen duten indar edo botereak dituela bere baitan, desparekotasun ekonomiko horri fabore egiten diotenak. Bestalde, konbergentzia indarrak ere badaude, zenbait une eta agertoki zehatzetan lehenengoei gailendu ahalko zaizkienak. Hala ere, Piketty-ren hitzetan, ohikoena litekeena da dibergentzia indarrak uneoro indartsuagoak izatea³³.

Horrekin guztiarekin ulertarazi nahi duguna zera da, gaur egungo sistemetan, herrialde kapitalistenenek jarraitutako dinamikak eta gobernu horiek jokoan jartzen dituzten mekanismoak kontuan hartuta, desparekotasunak aurrera egiteko marko zabala daukala. Gobernuak beraiek dira desparekotasun ekonomikoarekin joka dezaketen eragile nagusiak, haiei baitagokie fenomeno horrengan eragin dezaketen ia politika oro erabakitzea, besteak beste, tributazio politikaren eta inbertsio politikaren definitzaileak baitira. Hortaz, aurreko puntuan aztertutako Thomas Piketty-ren ideia partekatzea bidezkoa litzateke, eta aldi berean kezkarria, aberatsenek estatuengan eragiteko daukaten boterea ere handitzen ari baita. Plutokrazia estatubatuarra da esan bezala, horren erakusle nagusia, eta, European beharbada hain agerikoa izan ez arren, existitzen dela ukaezina litzateke. Hala ere, badago indar nibelatzaile bat, gainerakoen gainetik dagoena, desberdintasun horiek gogorrago eta denbora gutxiagoan murrizteko gai dena. Indar berdintzaile hori, gerra edo gatazka armatua litzateke, eta horren inguruan arituko gara jarraian.

5. GATAZKA ARMATUEK SORTZEN DITUZTEN INDAR KONBERGENTEAK

Jarraian gatazka armatuek desparekotasun ekonomikoaren jarreran daukaten eragina aztertuko dugu, horiek sortzen dituzten zenbait indar konbergentetan sakonduz,

³² *Ibidem.*, 152.or.

³³ PIKETTY, T. (2014). *El Capital en el siglo XXI*. 36.or.

hau da, berdintasunaren aldeko indarretan. Izan ere, edozein estatuk tamaina honetako erronka bati aurre egiteko behar dituen baliabide ekonomiko zein materialen lorpenak, eta gatazkak berak sortzen dituen ondorio suntsitzaileek, eragin ekonomiko nahiko interesgarriak dituztela ohartuko gara.

Beraz, gerra garaian agertzen diren inflazio fenomenoek, azpiegituren suntsipenak, gobernu ezberdinen erregulazioek, langabeziaren murrizketak eta politika fiskal progresiboek, indar konbergente gisa jarduten dutela arrazoituko dugu jarraian. Guzti hauek, era berean, hainbat autorek defendatzen duten ondareen gatzetzearen fenomeno baimenduko dute, jabeen adinarekin zerikusia duen fenomeno berdintzaile interesgarri bat.

a) Fenomeno Inflazionisten Agerpena

Gatazka armatuek, beharizan ekonomiko izugarri handiak sortzen dizkiete horietan parte hartzen duten gobernuak, lehen eta bigarren mundu gerretan ikusi zen bezala. Izan ere, bi mundu gerrek, soldaduen soldatak, armak eta bestelako logistika ezberdinak finantzatzeko gobernu beligeranteen zorpetze nabarmena eragin zuten, inoiz ikusi gabeko mailan. Zorpetze maila altu horiek, era berean, inflazio tasa handiak eragin zituen, billete kopuru erraldoia inprimatzeko beharra sortu ondoren³⁴.

Lehen Mundu Gerraren amaierarekin bat, hiperinflazio fenomeno leherrarazi zen estatu parte hartzaile gehienetan, nabarmenena, Alemanian gertatutakoa izan zelarik. Moneta, etengabean devaluatzen zen bitartean, gobernuak dirua igortzeari ekin zion egunero, barne eskariari eutsi eta defizit fiskal hori finantzatzeko iturri gisa. Hori dela eta, dirua, balioa galtzen hasi zen, paperaren pisuaren besteko balioa izatera iritsi zen arte. Esate baterako, 1923. urteko azaroan, Alemaniako Banku Zentralak, 130 inprimategi ezberdin erabili zituen billeteak jaulkitzeko, kopuru izugarri handia, eta ondorioak ere, parekoak izango ziren. Hiperinflazio horren ondorioz, 1923an, dolar bat osatzeko 43.000.000 marko behar ziren, 1922ko hasieran 4,3 marko behar ziren bitartean³⁵.

Japoniari dagokionez, Moriguchi eta Saez-en arabera, Bigarren Mundu Gerran, inflazioa, gerraren suntsipen materialarekin eta gobernuaren erregulazioekin batera, errentaren deskontzentrazioarako funtsezko 3 faktoreetako bat izan zen. Izan ere, autore

³⁴ *Ibidem.*, 124.or.

³⁵ SUBIRÁ, G. (2005). *Bonos e hiperinflaciones en Europa entre 1914-1950*. 80.or.

hauen esanetan, inflazioak eragin handia izango zuen irla honetako goi klaseetako ondareen murrizketan, kreditu finkoko aktiboen balio erreala murriztu baitzuen, hala nola, bonuena edo gordailuena. Horren bitartez gainera, lehen kapital errentak kolapsatuko ziren eta, ondorioz, alokairu errentak ere murriztu. Japoniak, 1944-1948 aldian, hiperinflazio izugarria erregistratu zuen, non kontsumoen prezioek %5300 egin zuten gora³⁶.

Lehen Mundu Gerraren hasiera eta Bigarren Mundu Gerraren bukaera arteko garai hartan, esan bezala, jarduera ekonomikoak behera egin eta prezioek gora egin zuten, benetako soldatak eta, beraz, familien eros ahalmena, murriztu zirelarik. Hala ere, Thomas Piketty-ren esanetan, inflazio fenomeno horrek diru sarreraren berdintasun handiagoa eragin zuen. Izan ere, hark defendatzen zuen soldata baxuenek gaitasun handiagoa zeukatela balioa handitzeko edo inflazioaren arabera eguneratzeko, soldata altuenak baino askoz neurri handiagoan. Hori gertatzearen arrazoia, soldata baxu eta ertainak, soldata altuak baino hobeto indexatzen zirela zen, ekitate arauen garrantzia handia baitzen soldatapeko sektorean, diru sarrera txikiagoak eta beraz ahulenek osatzen zuten klasearen erorketa handiegia saihestu nahi baitzuten³⁷. Esan liteke, soldata baxuenak inflazio efektu horretatik babestuago geratzen zirela. Hori dela eta, Piketty-k dio, diru kopuruen oroipen zehatza desagertu egin zela bi mundu gerrek iraun zuten garai horretan, 1914. urtea baino lehen diru sarrerak eta aberastasunak nonahikoak ziren bitartean, ordutik aurrera bertan behera geratu zirelarik³⁸.

Fenomeno hori defendatzen duen beste bat Branko Milanovic bera da, zeinaren arabera, gerrek desparekotasun ekonomikoa murrizten duten inflazio tasa izugarriak eraginez, azken honek benetako galerak eragiten dizkielako hartzekodunei³⁹. Inflazioaren ondoriozko moneta balioaren galerak, hartzekodun bakoitzari ezkutuko galera eragiten dion bitartean, zordun bakoitzari ezkutuko irabazia sortzen dio. Hori gertatzen da kredituak likidatzeko unean, zordunek, beren zorren balio nominala ordaintzen dutelako, eta zor horiek, dagokien inflazio prozesuaren eraginpean daude, hau da, moneta korrontean. Inflazioaren ondoriozko diruak aurreko unean baino gutxiago balio duenez, eta zorrak balio eguneraketa berri horretara eguneratu ez direnez,

³⁶ MORIGUCHI, C.; SÁEZ, E. (d.g). *The evolution of income concentration in Japan, 1886-2005*. 86,101.or.

³⁷ PIKETTY, T. (2014). *El Capital en el siglo XXI*. 314.or.

³⁸ *Ibidem.*, 126.or

³⁹ MILANOVIC, B. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. 82.or.

kredituaren balio erreala ere txikiagoa dela uler daiteke, zordunari mesede egiten diolarik fenomeno horrek, ordaindu beharrekoa eta, aldi berean, hartzekodunak jaso beharrekoa, balio errealean jaitsi egiten baitira⁴⁰. Hortaz, klase baxu edo ertaina osatzen duten gizabanakoek hartzekodun izateko gaitasunik ez dutenez, uler daiteke klase altuko gizabanakoak izango direla balioa galdu duten zor horien jabe, fenomeno honen eraginetik kaltetuago suertatuko direlarik.

Ikuspuntu horrekin bat egiten duten beste bi autore, Furman eta Stiglitz dira, zeintzuen arabera, inflazioak sortzen dituen kostuak, neurri handiago batean eragiten duten goiko klasea osatzen duten gizabanako horiengan. Bi hauen arabera, klase baxuenen barnean sartzen diren horiek, babes handiagoa jasotzen dute laguntza publikoetatik, hala nola, gizarte segurantzatik, zeintzuek osagai interesgarri bat daukaten, izan ere, inflazioaren aldaketa ezberdinetara indexatzen dira. Bestalde, goiko klaseen diru sarreren iturria finantzatutako aktiboetan dago, zeintzuek inflazioaren eraginaren ondorioz sufritzen duten, normalean ez baitira inflazioaren arabera indexatzen⁴¹.

Laburbilduz, inflazioak desparekotasun ekonomikoa murrizten duela baieztatu dezakegu, batetik, klase ertain eta baxuen sarrera iturrien indexazio ahalmena, klase altuaren sarrera iturriena baino handiagoa delako, soldata baxuenak zein laguntza publikoak ezaugarri hori baitute. Bestetik, zorren jabeak, hau da, hartzekodunak, klase altuenekin identifikatzen direnak, zordunak baino kaltetuago suertatzen dira inflazio prozesu hori dela eta, zorraren likidazio unean, hauek jasotzen duten zorraren balio erreala murriztu egiten baita, inflazio prozesua dela eta.

b) Kapital Fisiko edo Materialaren Suntsipena

Gerraren ondorio zuzenik eta nabarmenena, giza kapitalaren eta kapital fisikoaren suntsiketa litzateke. Lehen Mundu Gerran jasandako galera ekonomikoak izugarri handiak izan ziren, batez ere, Frantzia, Belgika, Serbia, Polonia eta neurri desberdin batean Alemania ere. Esaterako, Belgikak 100.000 etxebizitza galdu zituen eta altzairu fabriken erdiak suntsitu ziren, Frantzia, burdin ekoizpenaren %90a eta 250.000 etxebizitza desagertu ziren, Polonia, 1,8 milioi eraikin eta 215 milioi metro kubiko egur eta Hungaria, bere industriaren %50a eta basoen %85a. Alemaniak, bere

⁴⁰ GEORGESCU, I. (d.g) *La valoración en condiciones de inflación*. 114.or.

⁴¹ FURMAN, J.; STIGLITZ, J. (d.g). *Economic consequences of income inequality*. 248.or.

aldetik, asko sufritu zuen ezarri zitzaizkion zigorren ondorioz, bere azalera %13,5ean murriztu baitzen, eta horrek, aldi berean, bere biztanleriaren %10aren murrizketa ekarri zion, lurralde propioan jasandako suntsiketa guztiaz gain⁴².

Bigarren Mundu Gerrari dagokionez, gehien sufritu zuen herrialdea Sobietar Batasuna izan zen, bai materialki zein populazio aldetik, 25 milioi pertsona inguru hiltzeaz gain, 17.000 hiri eta 70.000 herri suntsitu baitziren. Horrek, bere industrien %70eko eta bere garraiobideen %60ko galerak eragin zizkion. Gerraren ondoren, Britainia Handia, Suitza eta Bulgaria alde batera utzita, Europaren ekoizpena, gerra aurreko mailarekin alderatuz, %50ean jaitsi zen. Alemanian eta Austrian, elikagaien kontsumoa %40an beheratu zen, herrialde askok bere trenbide materialaren erdia galdu zuten eta Europar merkataritza flota ere %40 inguruan suntsitu zen⁴³.

Ez dugu ahaztu behar ezta ere Bigarren Mundu Gerra garaian Pazifikoan bizitzako gerra, non Scheidel-en arabera, Japoniak, nahiz eta gerraren amaierako fasera mugatu, izugarritzko kalteak jasan zituen. Autorearen arabera, 1945eko irailerako, herrialdeko kapital fisikoaren laurdena suntsiturik zegoen, baita merkataritza flota totalaren %80a eta eraikinen %25a. Adibide bezala, soilik Tokioko bonbardaketan, urte bereko martxoaren 9 eta 10eko gauen artean, amerikarrek 250.000 eraikin baino gehiago errautsi zituzten, 100.000 biztanle baino gehiago hiltzeaz gain. Hiroshimaz eta Nagasakiz, ez dago hitz egin beharrik⁴⁴.

Kapitalaren suntsitze horrek, berdintasunezko ondorioak ditu errentaren eta aberastasunaren banaketan, jarraian aztertuko dugun bezala, hala ere, berdintasunerantzko mekanismo hori aktibatzeke, beharrezkoa litzateke suntsipen maila nabarmen bat. Gertuko adibide bakarrak, lehen eta bigarren mundu gerrak lirateke, izan ere, gatazka beliko horien aurretik, 30 urteko gerraren ondorioz sorturiko suntsipenak soilik izan zituen antzeko ondorioak. Ikuspegi horretatik, argi dago baita ere, Bigarren Mundu Gerrak askoz ere suntsipen handiagoa eragin zuela, unean uneko teknologia ere aurreratua baitzen eta frontetik askoz urrunago bonbardatzea posible zelako, hiri osoak suntsitzea ahalbidetuz⁴⁵. Hiriei eragindako bonbardaketa masibo horiek gaur egun ere ikus daitezke, esate baterako, Errusia eta Ukraina arteko gerran, non Mariupol

⁴² SUBIRÁ, G. (2005). *Bonos e hiperinflaciones en Europa entre 1914-1950*. 73.or.

⁴³ *Ibidem.*, 75.or.

⁴⁴ ALFANI, G. (2023). *Inequality in History: A long run view*. 16.or

⁴⁵ *Ibidem.*, 16.or.

bezalako hiri asko errautsita gelditu ziren armada errusiarraren bonbardaketa sistematikoen ondorioz.

Autore askoren ustetan, gerrak ondorio kaltegarriagoak sortzen dizkiete goi klasea osatzen duten gizabanakoei, erdi eta behe klasea osatzen duten norbanakoekin alderatuz. Fenomeno hau baieztatu zuen autore bat Neil Cummins izan zen, Britainia Handian egindako ikerketa baten bidez. Horren arabera, aberastasunaren suntsipena askoz handiagoa izan zen Lehen Mundu Gerran (%38) bigarreanean baino (%16), baina suntsipen horrek ekarritako galerak ezberdinak izan ziren klaseen artean. Cummins-en analisiak erakusten diguna zera da, suntsiketa hau, gerra aurreko eliteetara mugatzen dela ia erabat, Victoriar dinastiak⁴⁶ datorren eliteen aberastasunaren %60 inguru Lehen Mundu Gerran suntsitu baitzen. Honela, ikerketak erakusten digu klase ertain eta baxua, gerra ondoren aberasten direla eta 1918. urterako, hau da, gerra amaierarako, gerraren aurretik zeukatena baino aberastasun handiagoa daukatela, aberastasun hura azken urte horietan berreskuratzen dutela ulertuz. Bestalde, Bigarren Mundu Gerran, elite Victoriarraren aberastasuna ere gehiago kaltetzen da, baina oraingoan suntsipen hori %26ra murrizten da. Era berean, klase ertaina ere nahiko kaltetua suertatzen da gatazka honetan, alemaniar Blitz⁴⁷ delakoak haren aberastasunaren %12a suntsitzen baitu. Klase baxuari dagokionez, beste behin, 1945ean, hau da, gerra bukaeran, 1939an baino aberastasun handiagoa dauka. Azkenik, Cummins-en ikerketarekin bukatzeko, autoreak baieztatzen du Bigarren Mundu Gerraren ondorioak askoz ere berdinzaleagoak izan zirela lehenengoarenak baino, nahiz eta suntsiketa maila txikiagoa izan orokorrean⁴⁸.

2. Taula: Aberastasunaren Suntsipena Britainia Handian Lehen Mundu Gerran.

Lehen Mundu Gerra	Gerra aurreko aberastasuna	Gerra ondorengo aberastasuna	Suntsitutako jabatezak (%)
Eliteak	2.148	891	58,5

⁴⁶ Erresuma Batuko Victoria, Erresuma Batuko erregina izan zen 1837ko ekainaren 20tik, 1901eko urtarrilera arte, eta Indiako enperatriz titulua izan zuen lehen britainiar subiranoa, 1877ko urtarrilaren 1etik bere heriotzara arte. 63 urte eta 216 urteko erregealdi hori, Erresuma Batuko historiako bigarren luzeena da, Isabel II.aren erregealdiak soilik gaintutua. Garai Victoriarra bezala ezagutzen den honek, aldaketa industrial, politiko, zientifiko zein militarrik izan zituen, eta britainiar inperioaren hedapena izan zuen ezaugarri nagusi bezala. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://datos.bne.es/persona/XX979643.html>

⁴⁷ Blitz, Alemania Naziak, Britainia Handiarengan 1940ko irailaren eta 1941eko maiatzaren artean aurrera eramandako bonbardaketa bizia izan zen, Londres eta beste hiri estrategiko ugari suntsitu zituen. Izena, alemaniar *blitzkrieg* hitzetik dator, "tximista" gerra bezala itzuli daitekeena. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.britannica.com/event/the-Blitz>

⁴⁸ CUMMINS, N. (2021). *The Hidden Wealth of English Dynasties, 1892-2016*. 60,61.or.

Klase ertaina	35	56	-59
Klase baxua	13	109	-728,5

Cummins (2021), 60.or.

Oharra: Aberastasuna milioitan dago.

3. Taula: Aberastasunaren Suntsipena Britania Handian Bigarren Mundu Gerran (milioi eurotan).

Bigarren Mundu Gerra	Gerra aurreko aberastasuna	Gerra ondorengo aberastasuna	Suntsitutako jabetzak (%)
Eliteak	1.501	1.111	25,9
Klase ertaina	213	187	12,3
Klase baxua	314	316	-0,7

Cummins (2021), 61.or.

Oharra: Aberastasuna milioitan dago.

Denok pentsa dezakegu enpresa azpiegiturak suntsitzeak enpresari handiei kalte handiak eragiten dizkietela, eta datuei erreparatuz gero, hori horrela izan arren, gerra mundialek ekarritako suntsiketak ez ziren ondorio horretara mugatu. Bonbardaketen ondoriozko suntsipen masiboak aberatsenei kalte gehien eragitearen beste arrazoi bat, gerran zehar kapital etekinak desagertzea izan zen. Japonian, Bigarren Mundu Gerra baino lehen, klase altuenen diru iturri handienak bi norabidetik zetozen, enpresa etekinetatik batetik, eta, kapital etekinetatik, bestetik. Lehen aipatu bezala, enpresen suntsipena izugarria izan zen, baina bestalde, errentamendu sarreren ehunekoia ere hondoratu egin zen, 1938an errenta nazionalaren seiren bat osatzen zuen bitartean, 1946an, %3 izatera ere iritsi ez zelarik. Gerra aurretik, aberatsenek, beraien diru sarreren heren bat jasotzen zuten kapitalaren errentamendu horien bitartez, baina 1945erako, diru sarreren zortziren bat baino gutxiago osatzen zuten alokairuek⁴⁹. Bigarren Mundu Gerrak eta osteko okupazio erreformek eragin handia izan zuten aberastasunaren banaketan, izan ere, oro har, kapital errentek guztizko errentengan duten partaidetza errentaren tamainaren arabera handitzen zenez, errentari nagusiek, hau da, goi klaseak osatzen zituztenek, galera neurrigabea izan zuten bere diru sarreretan. Hortaz, baieztatu genezake bai gerrak zein gerraosteko erreformek, izugarritzko zeresana izan zutela errenta altuko errentariak desagerrarazte aldera⁵⁰.

⁴⁹ SCHEIDEL, W. (2018). *El gran nivelador*. 148.or.

⁵⁰ MORIGUCHI, C.; SÁEZ, E. (d.g). *The Evolution of Income Concentration in Japan, 1886-2005*. 95.or.

Azkenik, aliatuek 1945eko otsaila eta abuztua bitartean Japoniar hiri nagusienetan egindako aire erasoek ondorio suntsitzaileak izan zituzten metropoli eremuetan pilatzen ziren errentari guztiengan. Aberastasun handienak eta errenta hartzaile handienak, herrialdeko hiri nagusienetan kokatzen ziren, hau da, estatubatuar hegazkinen lehen helburu ziren hirietan. Hori dela eta, jasandako suntsipenak aberatsenen egoera gehiago okertu zuela baieztagarria da, eta honen adibide lirateke Tokioko eremuaren %51a eta Osakako eremuaren %26a suntsitu zuten bonbardaketen ondorioz sufritutako galerak⁵¹.

Laburbilduz, datuen arabera begi bistakoa da gatazka belikoez mota guztietako azpiegiturengan daukaten suntsipen ahalmena, hala ere, ezin genezake baieztatu suntsipen hau klase guztien artean ekitatiboki partekatzen dela. Izan ere 3 dira arrazoiak klase altuenak gatazka aldietan kaltetuagoak suertatzeko. Lehenik, aberatsak enpresa azpiegituren jabeak izateak, klase baxuenek ez daukaten suntsipen arrisku bat eragiten dute. Bigarrenik, aberatsek jaso ditzaketen kapital errentamenduengatik etekinekin, berdina gertatzen da, klase baxuenak beste behin, haien jabeak ez izatean, ez baitaukate haiek galtzeko arriskurik. Azkenik, hiri nagusienetan bizitzearen garestitasunari edonork ezin aurre egiteak, haietan bizi diren dirudunen ehunekoak gora egitea eragiten du. Kontutan hartuz azken hiri hauek direla etsaiaren erasoen lehen helburu, kaltetuago suertatzen dira, eta zeharka, baita aberats hauek ere.

c) Lehia Askearen Aurkako Gobernu Erregulazioak

Gerren eztaidak sortzen dituzten finantziario beharrak, erronka ekonomiko bihurtzen dira edozein gobernurentzat. Erronka horri aurre egiteko, gobernuen joera orokorra, normala baino askoz ere interbentzionistagoa den politika ekonomiko baten alde egitea da, merkatu librea alde batera utziz, eta hainbat neurri ekonomiko inposatuz. Hala, gobernuak beraiek dira bizitza ekonomikoaren alderdi asko erabakiko dituztenak, gerra gabeko eta lehia askeko mundu kapitalista normal batean, beste subjektu batzuen eskumenekoak izango liratekeenak, eta honenbestez, kapitalismo puruak daukan desparekotasun ekonomikoa sortzeko gaitasuna geldituko luketenak. Jarraian, zenbait adibideren bitartez egoera hau aztertuko dugu:

⁵¹ *Ibidem.*, 102.or.

1. Japonia (1939-1945)

Bigarren Mundu Gerra aurretik, Japoniar gizartean, Zaibatsu⁵² izeneko sistema bat zegoen indarrean, desparekotasun ekonomikoa handitzea eragiten zuena, familia aberats gutxi batzuen eskuetan aberastasun izugarria pilatzea baimentzen baitzuen. Hala ere, jarraian ikusiko dugun bezala, sistema osoa ahuldu egin zen gerrak aurrera egin ahala, neurri handi batean, gobernu erregulazioak zirela eta.

Walter Scheidel-ek, Bigarren Mundu Gerrako Pazifikoko gerra aztertzean, herrialde asiarrari dagokionez, adierazten du, arestian aipaturiko kapitalaren suntsipen fisikoarekin eta inflazioarekin batera, gobernu erregulazioak izan zirela diru sarrera eta aberastasun mailan, berdintasunezko fenomeno eragin zuten mekanismoetako bat. Are gehiago, autoreak onartzen du estatuaren esku hartzea, erregulazio ezberdinen bitartez, izan zela hiruren artetik mekanismorik garrantzitsuena. Honen arrazoa zera da, mundu mailako kanpaina beliko batek behar dituen baliabide ekonomikoak izugarri handiak zirela eta, gobernu ugariak lege ezberdinak promulgatu zituztela egoera horri aurre egiteko. Esaterako, 1938an, Japoniar gobernuak, Mobilizazio Nazional Orokorren Legea agindu zuen, zeinek botere handiak eman zizkion gobernuari Japoniar ekonomia kanpaina belikoaren zerbitzura egon zedin. Lege horrek aukera ematen zion estatuari, besteak beste, langileak kontratatzeke zein kaleratzeko, lan baldintzak aldatzeko, ekoizteko, banatzeko, mugitzeko, prezioak ezartzeko eta langileen arteko liskarrak konpontzeko⁵³.

Hurrengo urtean, 1939an, Dibidenduak eta Kapitalaren Zirkulazioa Kontrolatzeko Ordenantza onartu zuen gobernuak, zeinaren bitartez, dibidenduei ere mugapena ezarri zitzaien. Era berean, alokairuak, soldatak zein lurraren prezioak ere, izoztu egin ziren. Hori dela eta, enpresa handietako zuzendariak, beren soldata eta errentamenduengatik urteko diru sarrerak ere murriztuta ikusi zituzten. Errentaren gaineko zergak urtez urte handiagoak ziren, eta gatazka belikoaren beharrei aurre

⁵² Zaibatsu-ak, bertikalki integratzen ziren merkatu botere handidun enpresen konglomeratuak ziren, familia tradizionalak zuzentzen zituztenak. Japoniar inperioaren garaian bereziki, ospe eta indar handia hartu zuten, izan ere, lotura bereziki estua zeukaten bai indar armatu zein diktadorearen gobernuarekin, ondare izugarri handiak lortzen zituztelarik. Lotura hauetaz aprobetxatuz, monopolio jarduerak aurrera eramaten zituzten, aldi berean lan kostu oso baxuak mantentzen zituztelarik. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://bolsacba.com.ar/buscador/?p=1957>

⁵³ SCHEIDEL, W. (2018). *El gran nivelador*. 144.or.

egiteko, gobernuak gerra bonuak aktibatzeari ekin zion, nola ez, aberatsenen kaltetan, enpresetako partaidetzak zein enpresa bonuak behera egin baitzuten⁵⁴.

Gerrako makineria ere funtsezko faktorea zen. 1943an, Munizio Fabrikatzaileen Legea onartu zuen Japoniar gobernuak. Lege horrek botere handia eman zion estatuari armamentu hornitzaile izendatu ziren enpresen gainean, izan ere, enpresa horietan produkzio ikuskatzaileak izendatu zituzten eta, azkenean, estatua bera bihurtu zen enpresa horiekin egin beharreko inbertsioak, lanaren kudeaketa eta baita kapitalaren banaketa erabakitzen zituena. Kasu hauetan, era berean, mozkinak eta dibidenduak araututa zeuden. Bestalde, gobernuak, gerraren hasieran aurreikusitako muga gainditzen zuen ontzi oro konfiskatu zuen, horien %80a gerran galdu zelarik. Gatazkak aurrera egin ahala, estatuak gero eta botere handiagoa zuen, funtsik gabeko etorkizuneko konpentsazio faltsuen truke⁵⁵.

Politika horietako askoren bitartez, estatuak, enpresa pribatu ugaritan hartu zuen parte. Gainera, gerraren ondorioz, aipaturiko Zaibatsu sistema osatzen zuten familia horien aurrezki eta inbertsioak nahikoak ez zirenean, maileguak eskatu behar izan zituzten zirkulu itxi horietatik kanpo. Gerra aurretik, Zaibatsu enpresak erpin komuneko enpresa batek kontrolatzen zituen, enpresa horrek aldi berean, familia kontseilu bati erantzuten ziolarik. Hori zen sistema horren gakoa, baina gerrak, familia hauek ahultzean, sistema osoa indargabetu zuen, zirkulu horiek ireki behar izan baitzituzten, beraien ezaugarri nagusia zen pribatutasuna galduz⁵⁶.

2. Alemania (1930-1945)

Alemanari dagokionez, gobernu erregulazio hauek gerra aurretik hasi eta gerra bitartean iraun zuten. Hala ere, atal honetan aipagarriak izango lirатеke araudi horiek, izan ere, Naziak boterera iritsi zirenetik, gerra politika ekonomikoa martxan jarri baitzuten. Alemaniak, lehen mundu gerran suntsitua izan ondoren, bigarreneko berreskuratzeko izandako gaitasuna ikaragarria izan zen, zentsu handi batean, erregulazio hauek omititu ezker, ulertezina litzatekeena.

⁵⁴ *Ibidem.*, 145.or.

⁵⁵ *Ibidem.*, 145.or.

⁵⁶ MORCK, R.; NAKAMURA, M. (2003). *Been there, done that. The history of corporate ownership in Japan*. 85-87.or.

Nazien plangintza ekonomikoa etengabeko jarioan zegoen eta, horretarako, lau urteko plana⁵⁷ onartu zuen gobernuak 1936an, nahiz eta neurri ugari aurretik hartuta egon. Produktioaren osaera, kapitalaren eta altzairuaren merkatuaren araberakoa zen. Estatua, ez zen industriaz jabetu, baina Naziak iraupen luzeko kontratuak sinatu zituzten industria talde ezberdinekin, beraien produktuak prezio zehatzetan erosteko. Nahiz eta hasiera batean kontratu hauek bi aldeen arteko adostasuna erakutsi, egiatan, alde bien arteko indarra desorekatua zen. Jabetza pribatu hori ez bazen erabiltzen gobernuaren helburuak lortzeko, nazionalizatu egin zitekeen. Horren adibide bezala Junkers⁵⁸ konpainia genuen, zeinen zuzendariak Nazien ideiekin bat egin ez zuenez, enpresa nazionalizatu zuten 1934an, galera ordainduz⁵⁹.

Nekazaritzan ere esku hartu zuen Alemaniar gobernuak, antzeko kontrol zentralizatuen bidez, azken hau, aipaturiko lau urteko planaren barruan baitzegoen. Nekazariak lurraekin lotzeko asmoz, Naziak lurra saltzea debekatu zieten. Bestalde, merkaturatze taula batzuk ezarri zitzaizkien hauei, aldi berean, ekoizpena eta prezioak kontrolatzeko, eta hori betez gero, kuota batzuk eskuratzen zituzten. Taula horien ondorioz, baserrien prezioak jaitsi ziren 1930eko hamarkadaren erdialde aldera, eta nahiz eta horiek pribatu mantendu, erabakiak hartzeko eta soberako errentak eskatzeko ahalmena ere kendu zitzaien nekazariari. Laburbilduz, estatuak esku hartu zuen prezioetan, ekoizpenean eta landa lurren eskuratzean⁶⁰.

Nazien programa ekonomikoa ere prezio finkoetan oinarritzen zen, prezio indibidualak zuzenean zehazten hasi zirelarik jada lau urteko plana martxan jarri aurretik. Kostuen aldaketek, zergak eta hobariak ekarri zizkieten nekazariari, etekinak egonkortzeko eta, sarritan, behar izanez gero, ekoizpenaren araberako kontsumo ereduak aldatzeko publikitatea erabili zen. Industria prezioak ere kontrolatzen ziren

⁵⁷ Lau Urteko Plana, Alemania gerrarako prestatzeko Nazien programa ekonomikoa izan zen. Aginte ekonomia bat sortzea galdatzen zuen plana izan zen 1936-1940 urteen artean gauzatzeko eta 2 helburu nagusi zituen: alde batetik, alemaniar armadari gaitasun ekonomikoak ematea eta, bestetik, Alemaniar ekonomiak gerra garaiko baldintzei aurre egin ahal izatea. Hori lortzeko, autarkia ereduko ekonomia aurrera eramatea helburu zuten alemanek, hala ere ez zuten guztizko autarkia lortu. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.zachorfoundation.org/timeline/four-year-plan/>

⁵⁸ Junkers enpresa, 1923an sortu zuen Hugo Junkers-ek, hegazkinentzako motor fabrika txiki bezala, eta 1945ean desagertu zen guztiz, 1934an nazionalizatu ondoren. Inflexio puntua 1936an iritsi zen, fusio bati esker, hegazkin zibil zein militar fabrika bihurtu zenean, eta une horretatik aurrera, enpresa etengabeen hazi zen. Honela, enpresa hau izan zen Bigarren Mundu Gerrako bonbardatzaile ospetsuena sortu zuen enpresa, Junkers Ju 88 “Stuka” hain zuzen. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://alemanianazi.com/fabrica-de-aviones-junkers/>

⁵⁹ TEMIN, P. (1990). *Soviet and Nazi Economic Planning in the 1930s*. 576, 577.or.

⁶⁰ *Ibidem.*, 577.or.

1931. urtetik. Lau urteko planaren hasieran, Herman Goring⁶¹ komisario izendatu zuten, zeinek berehala prezioen igoera oro debekatuko zuen 1936an, “Preis-stop⁶²” delakoaren bidez. Hala ere, komisarioak berak adierazi bezala, haren figuraren printzipioetako bat prezio mugen behin behinekotasuna zen, beraz, ez zuen betirako iraun, baliabideak esleitzeko beste bide bat aurkitu behar zelarik. Izan ere, merkatu sistema batean, prezioak, baliabideak erabileretara zuzentzeko bideratzen dira, ekoizpenean zein kontsumoan, baina prezioen finkapen honen bitartez ez zen funtzio hori bete. Gainera, prezioen limite honen ondorioz, irabaziek, bere informazio iturri gisa jarduteko papera galdu zuten, merkatu prezioak existitzen ez baitziren. Hori zela eta, ezinezkoa bihurtu zen inbertsio desiragarriak zeintzuk ziren identifikatzea⁶³.

Nazi erregimenaren pean, interes tasa zein dibidenduak ere mugatu ziren, lehena, %4,5ean eta, bigarrena, %6ean. Honen bitartez, kreditu eskaera handitu zen, baina era berean bankuek baliabideak erabilera alternatiboetara bideratzeko gaitasuna galdu zuten. Hortaz, estatuaren beharren arabera arautu zen inbertsioa, sistema ekonomiko askeetako mozkinen pizgarrien orde. Inbertsio prozesuan finantzaketa publikoa izan zen nagusi azken batean. Era berean, gobernuak, bonu publikoak zein aurrekontuz kanpoko erosketa bonuak jaulki zituen, nahi zituen inbertsioak finantzatzeko, MEFO⁶⁴ bonu izenekoak⁶⁵.

Azkenik, alemaniar gobernuak industria berrantolatu zuen, unitate handiagoetan sailkatuz, jarduera ekonomikoaren gaineko estatuaren kontrola areagotzeko asmoz. Honela, Naziek, 13 administrazio taldetan banatu zuten industria guztia, bakoitzak, azpitalde gehiago zituelarik, estatuaren kontrolerako hierarkia sortzeko asmoz. Honela,

⁶¹ Herman Goring (1893-1946), Alemania Naziko zuzendari nagusienetako bat izan zen, beste kargu batzuen artean, aireko ministro gisa nabarmendu zena. Luftwaffe aireko armada, polizia sekretua “Gestapo” eta lehen kontzentrazio esparruak sortu zituen, hiruretatik lehena zuzentzeaz gain. Era berean, bere herrialdearen berrarmea zuzendu zuen 1936tik, Alemaniar industria guztia gerra ekonomiaren araberako diktadura baten mende jarritz. Gerra bukaeran, armada amerikarrak preso hartu eta Nurenbergeko auzitegiak epaitu zuten, heriotza zigorra ezarritz. Hala ere, epaia exekutatu aurreko egunean bere buruaz beste egin zuen. Informazio gehiago eskuragarri hurrengo estekan: <https://www.biografiasyvidas.com/biografia/g/goering.htm>

⁶² Preis-stop: Prezio geldiera.

⁶³ TEMIN, P. (1990). *Soviet and Nazi Economic Planning in the 1930s*. 578,579.or.

⁶⁴ MEFO bonuak, Reichsbankeko presidentea izan zen Hjalmar Schachtek 1933an sortutako finantziario tresna bat izan ziren, kreditu modura Metallurgische Forschungsgesellschaft m.b.H. bonuetan, hortik izena. Kanbio letra hauek, Reichsmarken parekoa zen txanpon bat sortu zuten. Horien bidez ordaintzen ziren armamentu enpresak eta, aldi berean, hornitzaileentzako ordainketa bide bezala erabil zitezkeen. Azken finean, banku maileguetara jo behar izan gabe finantzaketa lortzeko tresna bihurtu ziren, enplegua sortzen zutelarik aldi berean. Informazio gehiago eskuragarri hurrengo estekan: <https://segundaguerramundial.es/tercer-reich/bonos-mefo/>

⁶⁵ TEMIN, P. (1990). *Soviet and Nazi Economic Planning in the 1930s*.580.or.

estatuak enpresen jarduerak zuzendu zitzaizkeen, nahiz eta haien gaineko jabetzarik lortu ez. Era berean, lehen aipaturiko prezioen ezegonkortasuna ez gertatzeko, kartelak eratzeko joera sustatu zen, lehia desagerrarazteko asmoz⁶⁶. Naziek, prozesu hau pribatizazio bezala definitzen zuten arren, egiatan, enpresa industrial hauen jabeak beraien postuetatik kanporatzen ziren, gobernuan zegoen alderdi politikoko kideen orde⁶⁷.

3. Estatu Batuak (1941-1945)

Estatubatuarrek ere, aberastasunaren eta diru sarreren berdintasunezko banaketa eragin zuten politikak eta gobernu erregulazioak ezarri zituzten. Alde batetik, aurretik aipaturiko prezioen limitea ezarri zen. Prezioak Administratzeko Bulegoa, 1942an inflazioa geldiarazten saiatu zen, Gehieneko Prezioen Arautegi Orokorriari esker, edo garai hartan ezagutzen zen bezala, "General Max". Era berean, Gerrako Lan Batzorde Nazionalak soldaten igoeraren muga ezarri zen, muga %15ean kokatuz⁶⁸.

Gobernu federalak, inbertsio gehienak zuzendu, finantzatu eta kasu gehienetan bereak egin zituen. Planifikatzaileen aginduak betetzen ez zituzten hainbat enpresa pribatu xurgatu zituen estatuak, hala nola, herrialdeko korporazio handienetako batzuk ere, Montgomery Ward⁶⁹ esate baterako. Zergak, burokrazia edo sindikatu militanteak baino kezagarriagoa eta mehatxagarriagoa zen ideia bat bazegoen, gerra garaian jabeak produkzioarako beharrezkoak ez zirenen pentsamendua, hain zuzen. Bigarren mundu gerran, enpresariak haserre eta arrazoi guztiarekin kexatu ziren, gobernuaren inbertsioaren kontrolak, material urrien esleipenak, prezioen finkapenak eta soldaten mugak, enpresaburua bitartekari bat besterik ez zela adierazten baitzuen gobernuaren aldetik. Horrela, gerraren amaieran, herrialdeko industria planten laurden bat gobernu

⁶⁶ *Ibidem.*, 582,583.or.

⁶⁷ KENNEDY, J. (2022). *Yes, They Were Socialists: How the Nazis Waged War on Private Property*. Mises Institute. <https://mises.org/wire/yes-they-were-socialists-how-nazis-waged-war-private-property>

⁶⁸ *The American economy during World War II* – *EH.net*. (s. f.). <https://eh.net/encyclopedia/the-american-economy-during-world-war-ii/>

⁶⁹ Montgomery Ward & Co. Chicago sortu zuen Aaron Montgomery Wardek 1872an, Estatu Batuak nekazal herrialdea zenean oraindik. Populazioa oso sakabanaturik zegoenez, produktuak helaraztearen kostua oso handia zen, beraz, Ward, konturatu zen landa eremuetako txikizkariak baino merkeago sal zezakeela zuzenean nekazarietara bidetzeko. Une horretan eskuragarri zegoen garraiobide eraginkorrena trenaren bidez, eta hori erabiliz kostuak murrizten ziren. Beraz, Estatu Batuetako posta zerbitzua erabiliz, kostuak murriztu, eta gaur eguneko Amazon bezalako enpresa erraldoien aurrekari gisa eratu zen Montgomery Ward & Co. enpresa. Informazio gehiago eskuragarri hurrengo estekan: <https://www.elhamburgues.org/post/el-ascenso-y-ca%C3%ADda-de-montgomery-ward-co>

federalaren jabetzakoak ziren, hala ere, enpresa publiko horien sistema zabal horren antolaera berria, gerraosteko birmoldaketaren gai nagusienetako bat izan zen⁷⁰.

Garai hartan Roosevelt administrazioak enpresa pribatuak zuzentzen zituen beste adibide bat, 1943. urtean onarturiko Gerrako Lan Gatazken Smith Conally Legeari esker izan zen. Roosevelt-en gobernuak, langileen ahaleginak babesten aritu zen aurreko urteetan, kolektiboki negoziatzeko eta greba egiteko eskubideei zegokienez. Jarrera horren truke, estatuak, langileek ekoizpena maximizatzeko ahaleginak egitea espero zuen. Langile gehienek, helburu horren bila, grebarik ez egiteko konpromisoa hartu zuten, baina salbuespen nagusia, United Mine Workers⁷¹ meatzaritza sindikatua izan zen. Ikatz sektoreko greba horiek eragindako etsipenaren aurrean, kongresuak, aipaturiko legea onartzea erabaki zuen, zeinaren bitartez, grebek oztopatu zituzten funtsezko meatzeak zein fabrikak, estatuak bere zuzendaritzapean hartu zitzaizkeen⁷².

Era berean, soldata erreala ere igo ziren gerra garaian, baina lan honetan zehar aipaturiko hainbat puntutan adierazi bezalaxe, ez ziren uniformeki igo. Zuzendarien eta langileen soldatek ez zuten neurri berdinean gora egin, are gehiago, langile kualifikatu eta ez kualifikatuen artean ere aldeak nabarmenak izan ziren, orokorrean soldaten arteko aldea murriztuz eta “Konpresio Handia” bezala ezagutzen den garai horretan gertatutako desparekotasunaren murrizketaren alde eginez. Guzti honen arrazoia, zenbait autorerentzat, estatuaren aldetiko gerra garaiko soldaten kontrolean zegoen, soldata banaketaren goiko muturrean zeudenekiko gogorragoa izan zena. Aberatsenengan ezarritako kontrol zorrotasun horren arrazoi nagusia, kualifikaziorik gabeko eskulanaren eskaria handiagoa izatean zegoen⁷³.

4. Britainia Handia (1939-1945)

Britainia Handiak ere politika interbentzionistak aplikatu eta prezioen kontrolari ekin zion. Gerra garaian, kostuen igoera hainbat arrazoik eragiten zuten, besteak beste, inportazio kostuek gora egiteak, ekoizpen nazionala handitzeko kostuen igoerak,

⁷⁰ MASON, J. (2017, abenduak 4). *The Economy During Wartime - Dissent Magazine*. Dissent Magazine. <https://www.dissentmagazine.org/article/second-world-war-economy-mark-wilson-destructive-creation-re-view/>

⁷¹ United Mine Workers of America (UMWA) 1890ean Columbus, Ohio, sortu zen meatzarientzako sindikatua izan zen, lantoki seguruak, soldata onak eta Ipar Amerikako familien ordezkartza sendoa lortzeko. Gaur egun, sindikatu anitza da, ez soilik Estatu Batuetan, baizik eta baita Kanadan ere, eta, ikatz meatzariez gain, manufaktura langileak, osasun langileak edota enplegatu publikoak barne hartzen dituena, besteak beste. Informazio gehiago eskuragarri hurrengo estekan: <https://umwa.org/about/>

⁷² WALTON, G.; ROCKOFF, H. (2010). *History of the American Economy*. 474.or.

⁷³ *Ibidem.*, 474.or.

instalazioak gerra jardueretara bideratzeko gastuek eta abar. Politika honen helburu nagusienetako bat mozkinen murrizketa zen, zentzuzko maila batean. Hornikuntza, nabigazio eta garraio ministerioak izan ziren besteak beste politika hura jarraitu zutenak, irabaziak maila normalean mantentzeko asmoz. Honela, hornikuntza ministerioa izan zen industriako lehengaien prezioak ezarri zituen, bai nazio zein atzerriko erosleentzako arrazoizko maila batean ezarriz, gerra aurreko prezioak oinarritzat hartuz, ondoren berrikusteko. Elikadura ministerioak ere antzera jokatu zuen, kostuen gaineko marjina ezartzeko gerra aurreko egoerari erreparatuz, arrazoizko mozkinaren gainetik ez kokatzeko⁷⁴.

Aurretik aipaturiko inflazio tasa handiak maila makroekonomikoan leundu ahal ziren arren, ondasunen kontsumoa eskaintzara egokitzeko gobernuak zenbait neurri mikroekonomiko ere erabili zituen. Hainbat ministerio berri sortu ziren, hala nola Hornidura Ministerioa, Elikadura Ministerioa edo Gerra Ekonomiko eta Informazio Ministerioak. Horrez gain, gerra ekonomian bereziki garrantzitsu bilakatu ziren Gerra Gabineteko Idazkaritzaren Atal Ekonomikoa zein Estatistika Bulego Nagusia. Aipaturiko oreka hori bilatzeko, ondorengo neurriak hartu ziren: 1) Lehentasunak ezartzeko plangintza nagusi globala, 2) Kontsumitzaileen eskaria murrizteko errazionamendua, 3) Ekoizpen kuotak eta haren kontzentrazioa industria unitate handietan, 4) Eskulana sektoreen artean esleitzeko aurrekontu zentrala, 5) Baliabide urrien esleipen zentrala⁷⁵.

Hainbat artikulua arrazionalizatu ziren hasieratik, eta horien zenbatekoak gora egin zuen gerrak aurrera egin ahala, 1945era arte, noiz arrazionalizazio horrek gerra aurreko ondasunen kontsumo gastuaren erdia eta zerbitzuen kontsumo gastuaren herena estaltzen zuen. Era berean, horniduren mugaketa aginduek, ekoizpen zibilaren zati handi bat murriztu zuten, eta eskala ekonomiak zein estandarizazioa bilatzeko asmoz, estatuak, ekoizpenaren kontzentrazioa bereganatu zuen hainbat kontsumo industrietan. Era berean, beste hainbat lehengai ere gobernuaren kontrolpean zeuden, hala nola altzairua, zeinen gobernuaren eskari edo lizentzia pribatu bakoitzak, kantitate zehatzerako eskubidea zekarren. Era berean, Kapital Jaulkipenaren Batzordeak, kapital merkatuko jaulkipen berri guztiak kontrolatzen eta ikuskatzen zituen⁷⁶.

⁷⁴ EARLEY, J.; LACY, W. (d.g). *British Wartime Control of Prices*. 166,167.or.

⁷⁵ BROADBERRY, S.; HOWLETT, P. (2002). *Blood, Sweat and Tears: British Mobilisation For World War II*. 13.or.

⁷⁶ *Ibidem.*, 13,15.or.

Laburbilduz, herrialde beligeranteek politika benetan interbentzionistak hartu zituzten gerra garaian. Enpresa bakoitzean zuzenean esku hartu gabe, legedi soilaren bitartez ezarritako prezioen finkapenak eta soldatei zein dibidenduei ezarritako mugek, merkatuaren ohiko jarduna eragozten zuten, eta, beraz, enpresek ezin zituzten merkatu librean egonda lortuko lituzketen mozkin berak lortu. Gainera, gobernuak zuzenean esku hartu zuen inbertsio bakoitzean, gerra ekonomiari berari mesede egiteko, batzuetan, obeditu ezean gerta litezkeen mehatxu soilekin, eta beste batzuetan, pribatizazioarekin berarekin, aberastea ezinezkoa edo oso zaila izan zedin.

d) Langabezia-Mailen murrizketa

Esan daiteke aurreko mendean gertatu ziren lehen bi mundu gerrek langabezia murriztu zutela. Lehen mundu gerraren hasieran, Yankee ekonomia atzeraldian zegoen, baina 1914-1918 urteen artean, gorakada ekonomiko handia gertatu zen Lehen Mundu Gerraren ondorioz. Hasieran, gerran zeuden Europar estatuak produktu beliko estatubatuarrak erosten hasi ziren eta, beranduago, estatubatuarrak ere, batailan sartuko ziren. Horrela, lehen fenomeno horrek (Europarren erosketak) lan gehiago eta beraz, langile demanda handiagoa eragin zuen, eta, bigarrenak ordea (gerran sartzeak), gastu federal masiboa, ondasun zibilen ekoizpena gerra ondasunetara aldatu baitzen. Horri esker, 1914-1918 bitartean, 3 milioi pertsona inguru sartu ziren armadan eta beste milioi erdi bat gobernuan, langabezia %7,9tik %1,4ra murriztuz⁷⁷.

Europar, bestalde, gerra industriaren ekoizpenaren hazkundeak eta zerbitzuei erantzuteko beharrak, hala nola garraio publikoak edo posta zerbitzuak, frontera joan zirenak ordezkatzeko behartu zuen. Alemaniak bere aldetik, derrigorrezko lana inposatu zuen, langile kopurua ia bikoiztuz, eta aliatuek kolonietako langileen eskulanera jo behar izan zuten. Nerabeen laguntza ere eskatu zuten gobernuak, baina zeresan nagusia emakumeena izan zen, lan munduko protagonista bihurtuz. Frantzia esaterako, gerra aurreko urteetan 18.000 emakume zebiltzan metalurgia fabriketan lanean, ordea, 1918. urterako, 425.000 emakume inguru izatera iritsi ziren⁷⁸.

⁷⁷ LOZADA, C. *The Economics of World War I*. (s. f.). NBER. <https://www.nber.org/digest/jan05/economics-world-war-i>

⁷⁸ MONTAGUT, E. (2014). *Economía y empleo en la Primera Guerra Mundial*. <https://www.nuevatribuna.es/articulo/cultura---ocio/economia-y-empleo-primera-guerra-mundial/20140507183924103261.html>

Bigarren mundu gerrari dagokionez, baieztapen bera eutsi dezakegu. Gerrak eragindako gorakada ekonomikoak, eta horren ondoriozko industria ekoizpenaren hedapenak, enplegua suspertu zuten, besteak beste Estatu Batuetan. Horren erakusgarri da 1940-1944 aldian izandako langabezia tasaren murrizketa, %14,6tik %1,2ra. Izan ere, depresio garaian langabetuak zirenak ez ezik, 10,5 milioi estatubatuarrek baino gehiagok ere aurkitu zuten lana, besteak beste, orduan lanik egin ezin zezaketen eta Pearl Harbor-en ondoren adin nagusitasuna eskuratu zuten 3,25 milioi gazteek, edo orduan lan bila ez zebiltzanak, azken horien artean 3,5 milioi emakume inguru nabarmendu ditzakegularik. Emakumeei zegokienez, nahiz eta gehienak lan administratibo edo zerbitzu lanetan aritu, 2 milioi emakume baino gehiago sartu ziren gerra industrietan. Horrez gain, enplegua ez zen soilik frontean sustatu, izan ere, gobernu federaleko sail exekutiboan zebiltzan langileak 1938an 830.000 izatetik (jada maximo bat), 1945ean 2,9 milioi izatera igaro baitziren⁷⁹. Laburbilduz, 1940-1944 aldian langabezia tasa estandarra, %14,6tik %1,2ra jaitsi zen, biztanleria aktibo zibila 54 milioitik 56 milioira igo, eta indar armatuetako enplegua 12 milioira iritsi zen, langabezia tasa murriztuz ezinbestean. Gerran, gobernuak, kanpaina belikoaren aurreko urteetako eskulan totalaren %22aren baliokidea gehitu zien indar amatuei, izan ere, indar armatuak 10,87 milioi langiletan hazi ziren. Hori dela eta, errekrutamendu militar masibo horrek neurri handi batean langabezia tasa murrizten lagundu zuen⁸⁰.

Britainia Handiari dagokionez, Bigarren Mundu Gerra garaian, biztanleria aktiboa igo eta langabezia maila jaitsi zen. Biztanleria aktiboaren gehitze hori, hiru arrazoitan oinarritu zen: langabe ugari xurgatzea, langile atzerritarren erabilera eta batez ere, lehen ez industrial gisa sailkatutako emakumeen parte hartzea. Azken hau izan zen hiruretatik garrantzitsuena, 1939-1943 garaian, emakumeen biztanleria aktiboa 5.094.000tik 7.253.000ra igaro zelarik, eskulanaren eta indar armatuen konbinazioak goia jo zuenean. Guztira, tarte horretan Britainiar biztanleria aktiboa 2,9 milioitan handitu zen, %14,5 inguru⁸¹. Hori guztia dela eta, 1939. urteko urtarrilean langabezia tasa %12,8koa zen bitartean, 1945eko urtarrilean %0,8koa izatera igaro zen⁸².

⁷⁹ TASSAVA, C. (d.g). *The American Economy During World War II*. <https://eh.net/encyclopedia/the-american-economy-during-world-war-ii/>

⁸⁰ HIGGS, R. (1992). *Wartime Prosperity? A Reassessment of the U.S. Economy in the 1940s*. 42,43.or.

⁸¹ ROLFE, S. (1952). *Manpower Allocation in Great Britain During World War II*. 176.or.

⁸² DENMAN, J.; MCDONALD, P. (1996). *Unemployment statistics from 1881 to the present day*. 6,7.or.

Gatazka belikoez langabezia murrizten dutenaren hipotesi hau, hemezortzigarren mendeko autoreek defendatu izan zuten jada, horien artean David Ricardok. Honen arrazoia, beharbada, gerra Napoleonikoetan egon liteke, non fenomeno hau agertu zen. Esate baterako, Britainiar Itsas Armada, gerra aurreko garaietan 16.000 gizon enplegatzen zituen bitartean, gerra ondoren 140.000 gizon enplegatzerara igaro zen, Frantziak Britainia Handia inbaditzeko arrisku handiaren ondorioz⁸³. Dena den egungo autoreek ere defendatu izan dute gatazka belikoen eta langabeziaren arteko lotura hau. Azken hauen artean, Robert Higgs kokatuko litzateke, zeinaren arabera, gerra garaiko ziklo ekonomikoek, Keynesiar eredu sinpleenaren balidazio gisa jarduten dute, izan ere, gastu publiko erraldoiek, aurrekontu defizit izugarriekin, ekonomia militarra sustatzen dute, honek aldi berean, eragin biderkatzailea izanik ekonomia zibilean. Zein litzateke horren emaitza? Enpleguaren, ekoizpen errearen eta kontsumoaren hazkundera, desparekotasun ekonomikoak behera eginez⁸⁴.

David Ricardok, gastu publikoaren hazkunde horrekin bat egiteaz gain, adierazten du goi mailako klaseetako kideek ordaintzen dituzten zerga gehigarriek esker finantzatu dela aipaturiko gastuaren hazkundera. Era berean, ekonomia militar honek goi mailako biztanleria horren kontsumo arruntak sorturikoa baino lan eskari handiagoa sortzen du. Beraz, kapitalisten esku egon beharko lukeen diru kopuru bat, gobernuaren esku geratzen da, pertsona gehiago kontratatzeke erabiliz, batez ere, errekrutamentu militarren bitartez. Horrek, langileen eskaera orokorra handitzen du, aldi berean, soldadak ere handitzen dituelarik, desparekotasun ekonomikoan eraginez, azken hura murrizten baitu⁸⁵.

Paul Samuelson eta James Tobin bezalako Nobel saridunek ere langabeziari aurre egiteko eredu keynesiar horrekin bat egin zuten, hau da, langabezia, gastu publikoa behar bezala handituz gero konpondu daitekeenaren ideiarekin, eta zehatzago, defizitaren bidez finantzatu gero gastuarekin. Estatuabatuari datuei erreparatuz gero, hipotesi honekin bat egin daiteke. 1939an, langabezia tasa maila oso altu batean zegoen, %11,3an, eta defizita berriz %3,07an. Keynesiarren arabera, askoz defizit handiagoarekin, langabezia ia desagertu zitekeen. Horrela, 1944rako, defizita, nazio

⁸³ *The Napoleonic Wars*. (2024). Encyclopedia Britannica. <https://www.britannica.com/place/United-Kingdom/The-Napoleonic-Wars>

⁸⁴ HIGGS, R. (1992). *Wartime Prosperity? A Reassessment of the U.S. Economy in the 1940s*. 42.or.

⁸⁵ MILANOVIC, B. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. 82.or.

produktu gordinaren %22,5eraino igo zen, baina aldi berean, langabezia inoiz erregistraturiko tasa txikienetariko batera jaitsiz, %1,2ra hain zuzen, hipotesia datu errealean bidez bermatuz⁸⁶.

Sintetizatuz, ekonomia militar edo gerra ekonomia batek, gastu publikoa aurrekaririk gabeko mailetara igotzea dakarrenak, langabezia murrizten du. Gatazka garaiek, bai errekrutamenduen bitartez, zein armamentu belikoaren ekoizpen materialerako, gizarte normal batek behar duena baino askoz handiagoa den lan eskaria galdatzen dute, baita gastu publikoaren tamaina berarekin ere. Horri Ricardok aipatutako ideia gehitzen badiogu, zeinaren arabera, aberatsek ordaintzen dituzten zerga gehigarriak dira gatazka hori benetan finantzatzen dutenak, desberdintasuna murrizteko tresna guztiz apropos baten aurrean geundeke.

e) Politika Fiskal Progresiboak

Desparekotasun ekonomikoa murrizteko tresna edo mekanismo ugari daude, baina eraginkorrenetako bat politika fiskala litzateke. Azken hau, gobernu erregulazioetan sartzea posible da, baina bake garaian ere erabil daitekeen (eta erabiltzen den) neurria denez, atal propioa izatea komeni duela uste dugu. Zerga sistema, zerga bilketako mekanismoa eta hortaz diru bilketako mekanismoa izateaz gain, banaketa tresna bat ere bada, desparekotasunaren gehikuntzaren edo murrizketaren alde egingo duena⁸⁷. Hori dela eta, gerra garaian zerga erreforma ezberdinen bitartez politika honen alde egitea, bi ezaugarritan oinarritu zen⁸⁸.

Lehenengo ezaugarria, gerren finantziazioek sortzen duten behar ekonomikoa litzateke, izan ere, esan daiteke ez dagoela kanpaina belikoetarako behar diren baliabide adina eskatzen duen bestelako jarduerarik. Bigarrenik, gatazka armatu horiek elkartasun eta sakrifizio sentimenduen sorrera dakarte, hau da, estatuarekiko konpromiso bezalako bat. Estatuarekiko sentimendu horien azalratzea, atmosfera fiskala berritzeko egoera ezin hobea izan liteke. Egia da zerga altuagoen inposizioa beti dela gatazkatsua, hala ere, eremu edo giro berri hori izan daiteke bilketa masiborako aukerarik ospetsuena sortzen duen unea. Beste modu batera esanda, gerra garaia, hark sortzen dituen patriotismo sentimenduetan oinarrituta, estatuak zergak igotzeko aprobetxatu beharko lukeen aukerarik egokiena litzateke. Hori dela eta, bien konbinazioak, zerga erreforma

⁸⁶ WALTON, G.; ROCKOFF, H. (2010). *History of the American Economy*. 470.or.

⁸⁷ CAVERO, T. (2014). *Desigualdad y fiscalidad van de la mano*. 156,157.or

⁸⁸ BANK, S.; STARK, K.; THORNDIKE J. (2008). *War and taxes*. 5.or.

berrien oinarriak ezar ditzake, zerga ordainketa progresiboaren alde egiten duten politiken bitartez, kanpaina finantzatzeaz gain, desperekotasun ekonomikoa murriztuko dutenak⁸⁹.

Pigou, aldiz, guztiz bestelako alderdi batean zentratzen da. Estatistikoki, esan daiteke gazteenak direla gerretan borrokatzera behartzen direnak, neurri handi batean, gizon nagusiak gainditzen baitituzte fisikoki. Era berean, baieztagarria da adineko gizonen aise gainditzen dituztela gazte horiek ekonomia edo aberastasunaren aldetik. Horren adibide gisa, 1918an, Pigou-k baieztatu zuen estatistiketatik ondorioztatzen zela herrialdeko ia kapital material guztia 20 urtetik gorakoena zela. Pertsona horien herena, 45 urtetik gorakoek osatzen zuten, zeintzuek kapital totalaren %75aren jabetza zeukaten. Hortaz, 45 urtetik gorako bakoitzak, batez beste, 20-45 urte artekoek baino sei aldiz kapital material gehiago zeukan. Autoreak beraz, indar fisiko eta ekonomikoaren arteko alde hori, konpentsatzeko bezalakoa dela aitortzen du. Hau da, gazteek, beraien indar fisikoa guda zelaian aplikatzen zuten bitartean, zaharrenek, indar ekonomikoa karga berezi baten bitartez zergatzea bidezkoena litzatekeela dio Pigouk. Hortaz, zergen eraginik handiena soldadutzatik salbuetsita dauden pertsona horiengan eroriko litzateke, aldi berean, ekonomikoki ahaldunenak direnak. Beraz, sakrifizio maila berdintzea proposatzen zuen Pigouk, batzuek, ekarpen fisikoa eginez eta, besteek, ekarpen ekonomikoarekin lagunduz⁹⁰.

Sakrifizioen arteko desoreka pertzepzio horrekin bat egiten duen beste autore bat John Hicks da. Horren arabera, desoreka pertzepzioaren sorrera, zenbaitek, gerra garaian sektore zehatzetan egindako inbertsioei esker lortzen duten etekin ekonomikoetan legoke. Honek arazoak sor ditzake, sarritan, irabazi horiek lortzen dituztenak, guda zelaitik kanpo dauden horiek izaten baitira. Beraz, batzuek bizitza propioa arriskuan jartzen duten bitartean, guda zelaitik kanpo dauden beste zenbaitek irabazi ekonomikoak lortzeak, batasun nazionaleko arazoak sor ditzake. Hori dela eta, desoreka pertzepzio hori leuntze aldera, gobernuen aurkako presioak sortzen dira, aberastasun horiek zergapetzeko⁹¹.

⁸⁹ *Ibidem.*, 5.or.

⁹⁰ PIGOU, A. (1918). *A special levy to discharge War Wealth*. 145-146.or.

⁹¹ SCHEVE, K.; STASAVAGE, D. (2011). *Democracy, War and Wealth. Lessons from two centuries of inheritance taxation*. 8.or.

Guzti hori dela eta, lehen mundu gerraren ondorioz estatuek sufritutako baliabide ekonomikoen gehiegizko beharrak, gobernuen erantzuna ekarri zuen. Erantzun hori, zorraren jaulkipen masibo eta zerga tasen igoera gogorraren bitartez eman zen, azken honi dagokionez, karga handiagoa ezarri zitzaielarik orokorrean errenta handienetako taldeei, zerga tasa oso progresiboen bitartez. Erresuma Batuan esaterako, errentaren gaineko zergaren gehieneko tasa %8,33an zegoen 1914an, aldiz 1920an %60an kokatzen zen. Estatu Batuetan bestalde %7tik %77ra igo zen. Kanadan bere aldetik, 1917 lehen aldiz ezarri zen errentaren gaineko zerga, tasa maximoa %21,9koa zelarik, ordea, 1920an %72,5era igo zuten. Frantzia lehen aldiz 1915ean ezarri zen baita, gerra garaian, %2ko gehienezko zerga tasarekin, baina 1919rako %50ean kokatu zen gehienezko tasa hori⁹².

Bigarren mundu gerran ere politika fiskal berdinarekin jarraitu zuten estatuek. Esaterako, Estatu Batuetan, gerra bonuez gain Altxorraren Departamentuak, errenta zergen progresibotasun maila handitu zuen. Biek ala biek, gerrarako dirua sortzeko orduan, sekulako arrakasta izan zuten. Ordainketa txekoen atxikipen etengabeen bidez, gobernuak diru kopuru handiak biltzen hasi zen gerrari aurre egiteko. 1939an 4 milioi ziren zerga federala ordaintzera behartuta zeudenak, ostera 1944an, 43 milioi. Horrela, 500 dolarreko errenta zuten estatubatuarrek urteko errentaren %23a ordaintzen zuten bitartean, milioia gainditzen zuten horiek, %94a ordaintzen zuten⁹³.

f) Aberastasunaren edo Ondareen Gaztetzea

Argi dago gerrek giza kapitalaren izugarritzko galera eragiten dutela. *Agence France Presse*⁹⁴-ren arabera, Lehen Mundu Gerrak iraun zituen 4 urteetan, 10 milioi pertsona inguru hil eta beste 20 milioi inguru zauritu eragin zituen guda zelaian. Besteak beste, azpimarratzekoak dira, Frantziak eta Austria-Hungariak izandako 1,4 milioi hildakoak, eta Alemania zein Errusiak izandako 2 milioi hildakoak. Hala ere, hildako guztiak ez ziren militarrik izan, gerraosteko eskualde gatazkek, goseteek eta

⁹² *Ibidem.*, 538, 539.or.

⁹³ *The American economy during World War II* – *EH.net.* (s. f.).
<https://eh.net/encyclopedia/the-american-economy-during-world-war-ii/>

⁹⁴ Agence France Presse, 1944an sortu zen eta Havas agentziaren oinordekoa da. Munduko hiru informazio agentzia nagusietako bat da, hiruretatik Europan kokatzen den bakarra. Gaurkotatua eta eguneroko bizitza osatzen duten gaiak azkartasun eta egiaztapen zorrotzenekin estaltzea da bereaien helburua. Egiaztapen digitalean munduko liderra den enpresa da, 100 nazionalitate ezberdineko 2400 langilek osatzen dutena, 6 hizkuntza ezberdinetan mundua estaltzen dutelarik. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.afp.com/es/la-agencia/sobre-la-afp/quienes-somos>

exodoek, besteak beste, 5-10 milioi zibil ingururen heriotza eragin zituztela kalkulatu baita⁹⁵.

Bestalde, Bigarren Mundu Gerra askoz ere krudelagoa izan zen. *The National WW2 Museum of New Orleans*⁹⁶ erakundearen arabera, iraun zituen 6 urteetan zehar, 60 milioi pertsona inguru hil ziren borrokalari eta zibilen artean. Nabarmentzekoak dira hemen, Sobietar Batasuna (24 milioi inguru hildako), Txina (20 milioi inguru hildako), Alemania (6,6-8,8 milioi inguru hildako), Polonia (5,6 milioi inguru hildako) eta Japonian (2,6-3,1 milioi inguru hildako) izandako bajak. Nahiz eta datuak oso ezberdinak izan erabiltzen den iturriaren arabera, guztien kontsentsua da aurrekaririk gabeko giza kostua izan zuela Bigarren Mundu Gerrak⁹⁷.

Zifra hauek interesgarriak dira lehen bi mundu gerren eraginak aztertzean, batez ere, Thomas Piketty-k, 1914-1945 aldian gertatutako “ondareen gaztetzea” deitzen duen fenomeno horretan eragina izan zezaketelako. Frantziar autorearen arabera, lehen bi mundu gerren arteko garai hartan, ondare guztiek talka nabarmenak jasan zituzten, giza kapitalaren eta kapital fisikoaren suntsipenaren, desjabetzeen eta inflazioaren ondorioz. Argi eta garbi dago gerrek biztanleria osoarengan eragin zutela, haien herrialdeek zuzenean edo zeharka parte hartu zutelako, ordea, okerrena litzateke pentsatzea honek biztanleria guztia era berean kaltetu zuela⁹⁸.

Aurreko atalean aipaturiko Pigou-k erabilitako estatistiketan oinarrituz, adina eta ondarearen artean dagoen harremana baieztatu genezake, izan ere, metatze denbora hutsak, adinean gora egin ezker, ondarea hazi daitekeela suposa dezake. Hau da, orokorrean, pertsona zenbat eta adinez nagusiagoa denean, orduan eta handiagoa izango da haren aberastasuna edo ondarea, nahiz eta beti gerta daitezkeen salbuespenak. Hori dela eta, egoera katastrofiko baten aurrean, gerretan adibidez, adinez nagusienak izango dira ondarea galtzeko arrisku handiena daukatenak, ondarearen izate hutsagatik.

⁹⁵ SADURNÍ, J.M. (2023). *Los Muertos que causó la Primera Guerra Mundial*. https://historia.nationalgeographic.com.es/a/muertos-que-causo-primera-guerra-mundial_18389

⁹⁶ The National WW2 Museum of New Orleans, New Orleanseko erdigunean kokatzen den museoa da, zeina Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuak, Bigarren Mundu Gerrako AEBko museo ofizial izendatu duen. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.nationalww2museum.org/about-us>

⁹⁷ Worldwide Deaths in World War II | The National WWII Museum | New Orleans. (s. f.). The National WWII Museum | New Orleans. <https://www.nationalww2museum.org/students-teachers/student-resources/research-starters/research-starters-worldwide-deaths-world-war>

⁹⁸ PIKETTY, T. (2014). *El Capital en el siglo XXI*. 436.or.

Bestalde, gazteek galtzeko gutxiago izateaz gain, suposatzen da bizitza luzeagoa daukatela aurretik aberastasun hori berriro ere berreskuratzeko edo birsortzeko. Laburbilduz, Piketty-ren ustetan, gerrek ondareak ezabatzen dituzte, eta horregatik, metaketa printzipioari jarraituz, adineko pertsonak izango dira kaltetuenak, galtzeko ondare handiagoak izateaz gain, aberastasuna berreskuratzeko edo birsortzeko gaitasun gutxiago izango baitute, aurretik, gazteei baino bizitza laburragoa geratzen zaiela kontutan harturik. Hori dela eta, ondareak “gaztetzen” direla esaten da, berriro jaioko balira bezala⁹⁹.

Hala ere, fenomeno hau, zerbait konplexuagoa da. Gatazka beliko horien ondorioak ez dira soilik 70 urterekin ondare osoa galdu dutenengana mugatzen, baizik eta ondare hura heredatu behar dutenengana ere bai. Hori dela eta, 50eko hamarkadan jaraunspena jasotzea tokatzen zitzaienek, ezer gutxi jaso zuten. Honi “Matthew-ren printzipioa” gehitzen badiogu, zeinaren arabera esan genezakeen jaraunspenean aberatsek are aberastasun handiagoa jasotzen dutela, prosperoak aberats bihurtzen direla, eta aberatsak are aberatsago, ohartuko gara prozesu horretan etenaldi bezalako bat gertatzen dela gerra bezalako kasuetan. Gainera, klase altuenen seme alabek joera handiagoa daukate eskola hobetara joateko, unibertsitatera joateko eta gurasoen finantza laguntza jasotzeko. Horrek guztiak lan hobek aurkitzen eta gurasoengandik opari handiagoak jasotzen laguntzen die, eta azken finean, herentzia handiagoak¹⁰⁰.

6. DESPAREKOTASUN EKONOMIKOA GATAZKA ARMATUEN SORRERAN

Gerrek desperekotasun ekonomikoa nola murriztu dezaketen aztertu ondoren, besteak beste, kapitalaren suntsipenaren, inflazioaren edo gobernu ezberdinen erregulazioaren bidez, interesgarria litzateke orain alderantzizko zentzuan aztertzea, hau da, desperekotasun ekonomiko horrek berak, gerren sorrera eragin dezakeen aztertzea.

Thomas Piketty-rentzat, kapitalaren kontzentrazioak behera egin zuen lehen eta bigarren mundu gerren ondoren, eta gerra aurreko aberastasunik handienak ez ziren inoiz berreskuratu, gatazka hauek daukaten berdintasuneranzko joera dela eta. Aberastasunaren kontzentrazio txikiagoak, mundu gerren ondoriozko suntsipen masiboak eragindako kapital-produktu arrazoi baxuagoarekin konbinatuta, kapitaletik

⁹⁹ *Ibidem.*, 436.or.

¹⁰⁰ SZYDLIK, M. (2004). *Inheritance and Inequality: Theoretical Reasoning and Empirical Evidence*. 42.or.

zetozen diru sarreren zenbatekoa murriztu zuen, aldi berean, desparekotasun ekonomikoa murriztuz. Autore honentzat halaber, gerrak eta horiek dakartzaten ondorio guztiak, elementu exogenoak dira, hau da, esparru ekonomikotik kanpo kokatzen diren elementuak, independenteak. Hori dela eta, Piketty-ren arabera, Lehen Mundu Gerra ostean nagusitu ziren gobernu komunista eta legedia ezberdinak ere exogenoak lirateke¹⁰¹.

Bestalde, Branko Milanovic ez dator bat Pikettyren ideiarekin, izan ere, honek adierazi izan du bai Lehen Mundu Gerraren eztanda zein desparekotasun ekonomikoa murriztu zuten politikak, joan den mendearen hasierako baldintza ekonomikoetara endogeneizatu behar direla, eta beraz, barne desparekotasun ekonomikoek izugarriko zeresana izan zutela Lehen Mundu Gerraren eztandan. Milanovic-ek defendatzen du gatazka horren eztanda, lehia inperialistak eragin zuela, garai hartako ezaugarri ekonomikoetan murgildurik, besteak beste, goi klasea osatzen zutenen aurrezki izugarriak, eskari agregatu eskasa, diru sarrera zein aberastasunaren desparekotasun handiak eta kapitalistek beren herrialdeetan aipaturiko aurrezkien soberakina era onuragarrian merkaturatzeko ezintasuna¹⁰². Jarraian, azken ikuspuntu hau aztertuko dugu.

a) Mundu gerra aurreko desparekotasuna

Hasteko, Milanovic-ek, Hauner eta Naidu-rekin batera, Lehen Mundu Gerra aurreko desparekotasun ekonomikoa aztertzen dute, taula sozialak erabiliz. Hauen bidez, gatazkan zeresan nagusia izan zuten herrialdeetan (Britainia Handia, AEB, Herbehereak, Japonia, Prusia, Italia eta Errusia), joan den mendeko lehen hamarkadako Gini koefizienteak aztertu, eta horiek guztiak 45-55 punturen artean zeudela ondorioztatzen dute, Prusia (datu oso fidagarririk ez duena) eta Errusia (garai horretan daturik erakusten ez duena) izan ezik. Hau da, herrialde guzti horien antzekotasuna nahiko handia izan zela baieztatzen dute. 1860. urtetik, ezberdintasuna batez ere Japonian hazten da, beste herrialdeetan nahiko egonkor mantentzen delarik, maila altuan hala ere. Azterketa honetarako erabilitako taulak, 2005-15 aldiko datuak ere erakusten ditu, eta esan daiteke, gerra bisperako datuak askoz kezkarriagoak zirela, izan ere, 2005-15 aldian, AEBk eta Herbehereek esaterako, 20 puntu gutxiago dituzte Gini

¹⁰¹ MILANOVIC, B. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. 114.or.

¹⁰² *Ibidem.*, 115.or.

koefizienteari dagokionez 1910. urteko datuekin alderatuz. Gainerako herrialdeetan, joera beherakorra mantentzen da baita ere, neurri txikiagoa bada ere¹⁰³.

4. Taula: Gini koefizienteak Lehen Mundu Gerran parte hartze nagusia izan zuten herrialdeetan.

	Britainia Handia	EEUU	Herbehereak	Japon	Prusia (Alemania)	Italia	Errusia
1860	57	49	-	40	32	50	-
1910	55	49	50	47	32	46	38
2005-15	35	41	29	32	31	36	35

Hauner, Milanovic, Naidu (2017), 8.or.

Jarraituz, autore horiek aztertzen duten ondorengo taulak erakusten diguna zera da, errenta fiskalaren gorenean kokatzen den %1ak, errenta totalarekiko duen kontzentrazioa. Aurreko paragrafoan aipatu ditugun herrialde beligeranteetako %1 gorena osatzen duten horiek, errenta totalaren %20aren jabe direla ikus dezakegu, Japonian izan ezik, non kontzentrazio hori %32ra igotzen den. Zifra nahiko altuak direla baieztatu daitezke, batez ere 2005-15 aldiarekin alderatuz gero, non jaitsiera orokorra den, AEBen izan ezik, %18an mantentzen baita kontzentrazio hori. Japonian ordea, adierazitako kontzentrazioa 23 puntu portzentualetan jaisten da, eta Herbehereetan 16 puntutan¹⁰⁴.

5. Taula: Errenta fiskalaren gorenean kokatzen den %1aren errenta totalarekiko pisua Lehen Mundu Gerran parte hartze nagusia izan zuten herrialdeetan.

	Britainia Handia	EEUU	Herbehereak	Japon	Prusia (Alemania)	Frantzia	Errusia
1880	-	-	-	17	17	-	-
1910	22	18	21	32	18	22	18
2005-15	14	18	5	9	11	9	-

Hauner, Milanovic, Naidu (2017), 11.or.

Hiru autoreek aztertzen duten azken taulak, %1 gorenean kokatzen direnen aberastasunaren kontzentrazioa neurtzen du, aberastasun guztiari dagokionez, baina

¹⁰³ HAUNER, T.; MILANOVIC, B.; NAIDU, S. (2017). *Inequality, Foreign Investment and Imperialism*. 8.or

¹⁰⁴ *Ibidem.*, 11.or

kasu honetan soilik Britainia Handiko, Frantziako eta AEBko datuak dira erakusgarri. Taula honen bidez, ikusi dezakegu 3 herrialdeetan %1 gorenaren aberastasuna izugarri handia zela 1910eko hamarkadan, baina batez ere Europan. Britainia Handian, %1 gorenaren herrialde osoko aberastasunaren %68aren jabe zen, Frantzia %55arena eta AEBn %44aren jabea. Hiru kasuetan aberastasunaren kontzentrazioa errentarena baino altuagoa zen. Gainera, 2005-15 aldiarekin beste behin alderatuz gero, jaitsiera nabarmena da, batez ere Europan. AEBn %1 gorenaren aberastasun kontzentrazioa %36raino jaitsi zen bitartean, Frantzia %23ra jaitsi zen, eta Britainia Handian azkenik %20ra¹⁰⁵.

6. Taula: Britainia Handian, EEUUn eta Frantzia aberastasunaren gorenean dagoen %1aren aberastasunaren kontzentrazioa, aberastasun totalarekiko.

	Britainia Handia	EEUU	Frantzia
1860	-	-	49
1910	68	44	55
2005-15	20	36	23

Hauner, Milanovic, Naidu (2017), 12.or.

b) Inperialismoa

Hobson, aztergarri den ideia honen defendatzaileetako bat litzateke, zeinaren arabera, Britainia Handia, Alemania edo Frantzia bezalako herrialde ezberdinetako manufaktura planten gainproduktzioak eragindako soberakinek, baliabide ekonomikoak beren mugetatik kanpo jartzera behartu zituzten, inbertsio horiei esker irabazizko irteera bat bilatzeko asmoz. Autoreak, Merkataritza Depresioari buruzko Britainiar Batzordearen 1885eko txosten nagusia aipatzen du, zeinaren arabera, momentu horretako ezaugarrien ondorioz, haien eskaria ez zen lehengo erritmo berdinean handitzen, herrialdearen ekoizpen ahalmena, herrialdearen beraren beharrianak baino handiagoa baitzen. Kapitalaren lehia bizian oinarriturik gertatu zen fenomeno hori zela eta, herrialdean ekoiztutakoa etengabean pilatzen ari zen, beren mugen barneko kontsumo ahalmena ez baitzen nahikoa¹⁰⁶.

¹⁰⁵ *Ibidem.*, 12.or

¹⁰⁶ HOBSON, J. (1902). *Imperialism: A study*. 85.or.

Autore berdinare arabera, produkzio tekniken hobekuntza orok, baita kapitalaren kontzentrazio bakoitzak ere, pilaketa arazo hori areagotzen zuten. Hori dela eta, nazio ezberdinek bere industria metodoetan inplementatutako teknologietan aurrera egin ahala, fabrikatzaileek, gobernuen laguntza erabili behar izaten zuten, aipatutako soberakin horren irabazizko helmuga bat ziurtatze aldera. Soberakinak, gutxien garaturik zeuden herrialdeetara bidaltzen ziren, herrialde horiei emandako babesaren bidez edo anxioaren bidez kontrolatzen zirenak. Hobsonen arabera, kapitalismoaren oinarria litzateke hau, zeina ez litzatekeen gertatuko jatorrizko herrialdeko kontsumo maila igoko balitz, baina kontsumitu ezin diren salgaiak baleude, sarritan maila batetik aurrera horiek kontsumitzea ezinezkoa bilakatzen delako, beti existituko litzateke soberakin hori, eta ondorioz arazo bera¹⁰⁷.

Bestalde, Rosa Luxemburgo-k dio arazoa, gizarte kapitalistetan dagoen lehia dagoela, metatzen prozesu horiek ahalbidetzen baititu. Horrela, kapitala da, horren arabera, militarismoa erabiltzen duena, kompetente izaten jarraitzeko, produkzio bide berriez eta lan indarrak jabetzeko, politika koloniala aplikatuz. Kapitala, une batetik aurrera, metaketa puntu edo maila batera iristen da, non baldintza ekonomikoak kaltegarriak bihurtzen diren kapitalismoarentzat berarentzat, baina hor agertzen da aipaturiko militarismoa, gorpila biratzen jarraitzeko¹⁰⁸. Historian zehar ikusgarria da hori, Europako fase kolonialean esaterako, non interes kapitalista europarra, Europakoak ez diren mugetara hedatzen arduratu den, lehenik eta behin, Indiako espezie ezberdinen herrialde ekoizleak konkistatzeko eta ondoren, kolonia modernoetan ekoizpen baliabideak eta eskulan merkeago berria bereganatu ahal izateko¹⁰⁹.

Lenin-ek ordea, inperialismoa, kapitalismoaren garapenari esker sortu zela baieztatzen du, baina inperialismo kapitalista bilakatu zela ekonomikoki hitz eginez, merkataritza kapitalista asketik, monopolio kapitalistara igaro zenean. Autore honen arabera, eskala handiko industriak, txikia baztertu du, eta aldi berean, eskala handiko industria, beste industria are handiago batek irentsi du, aipatutako monopolioaren fenomeno hori haziz, eta lehia askearen gainetik kokatuz. Beraz, inperialismoa, kapitalismoaren fase monopolista gisa definitzen du. Inperialismoa bestalde, anexioen aldeko borroka dela ondorioztatzen du, baina ez soilik nekazaritza lurraldeei

¹⁰⁷ *Ibidem.*, 86,87.or

¹⁰⁸ LUXEMBURG, R. (1913). *The Accumulation of Capital*. 466.or

¹⁰⁹ *Ibidem.*, 454.or

dagokienez, baita industrializatuei dagokienez ere, alde batetik, mundua jada zatituta egoteak anexionistak mota guztietako lurraldeak onartzera behartzen dituelako, eta bestetik, lurraldeen konkista zuzena ez delako kapitalismoaren arrazoi bakarra, aurkaria ahultzea ere helburu baitu honek¹¹⁰.

Weber-ek bere aldetik, adierazi izan du, kapitalismo inperialista beti izan dela enpresa esportatzaileek baino irabazi handiagoa dakarren fenomeno, lan kolonialaren bidez, bereziki politikoki edo ekonomikoki berriki ireki diren lurraldeetan. Horrela, bi dira autore honen arabera atzerriko lurraldeetan irabazteko aukera horiek bermatzeko modurik seguru edo hoberenak, alde batetik, okupazio politikoa eta bestetik, atzerriko botere horri eusteko protektoratu moduak. Irabazi gehigarri hori dela eta, Weber-ek defendatzen du joera inperialista, garai hartan, hedapenaren joera bakezaleago baten gainetik zegoela gero eta gehiago¹¹¹.

Hobson-ek, nazioa hain negozio kaskar batean nola sar daitekeen galdetzean, aurrez aztertutako erantzun bat aipatzen du. Izan ere, horren arabera, estatuaren interes komertzialak sektore jakin batzuen eta klase jakin batzuen interesen mende daude, klase aberatsenen interesen mende noski, baliabideak beraien onurarako erabiltzen baitituzte. Hobsonentzat, nahiz eta inperialismoa eta hark dakartzan gatazka guztiak nazioarentzat orokorrean txarrak izan, ez dira negatiboak klase horientzako. Horrela, gerra garestietan inbertitutako gastu publiko izugarri handiek, industria zehatzak elikatzen dituzte, goi klase hori osatzen dituzten jabeek zuzentzen dituztenak¹¹².

Inperialismoaren ondoriozko gatazkek eragiten dituzten kalte material eta moralak agerikoak dirudite, eta politika horiek erabateko irrazionalismo politikoarekin hartzen direla pentsa daiteke, baina hasiera batean dirudiena baino askoz arrazionalagoak dira benetan. Zenbait sektoreren interes komertzialak gizarte osoaren interesak gainditzeko gai diren estatu bat, politika horiek gauzatzera bideratuta dago. Izan ere, inperialismo mota hori ez da armamentuan, kanoietan eta itsasontzietan inbertitzeko gastu publiko izugarri handietara mugatzen, baizik eta esportazio jakin batzuetarako merkatuak ere eskuratzen dira, ingeniariarentzat, misiolariarentzat, meatzariarentzat eta eremu berri horietara emigratzen duten beste askorentzat enplegua ekarriz. Era berean, bandera aldaketa horiek, atzerriko herrialdeko inbertsioak ere

¹¹⁰ LENIN, V. (1916). *Imperialism, The Highest Stage of Capitalism. A Popular Outline*. 66,67.or

¹¹¹ WEBER, M. (1922). *Economia y Sociedad*. 676.or.

¹¹² HOBSON, J. (1902). *Imperialism: A study*. 51.or.

hobetzen dituzte, postu gehiago sortzen direlarik baita ere marinel, soldadu eta diplomatikoentzat. Beraz, interesdunak diren eta erabaki inperialista babesten duten guzti horiek, denen ongia ahazten dute. Inperialistak dira konbentzimenduz, presio politika horiek onak baitira beraientzat¹¹³.

Azken finean, Weber-ek aipatzen du gerrako makineriaren eta armamentuen bezerorik handienak estatuak beraiek direla, zeintzuek autorearen arabera, joera kapitalista bera sustatzen duten. Industria beliko astunak eta gobernuei material guzti hori erosten laguntzeko finantzaketa eskaintzen dieten bankuak dira interesatuenak, eta horiei berdin zaien gerra irabazi zein galdu. Enpresa handi horiekiko mendekotasun horrek eragiten du komunitate politikoak botere handidun enpresa horiek jasan behar izatea, nahiz eta azken hauek mundu guztian zehar estatu ezberdinei hornitu, baita askotan komunitate politikoaren beraren etsaiei ere¹¹⁴.

7. AZKEN GOGOETA

Azken gogoeta egin baino lehen, komenigarria litzateke lan honetan jorratutakoari buruzko laburpen txiki bat egitea. Datuen arabera, XIX. mendeko bigarren hamarkadatik aurrera bizitako industria iraultzak eta duela 40 urte inguru bizitako iraultza teknologikoak, desparekotasun ekonomikoa areagotu zuten. Hala ere, era ezberdin batean handitu zutela esan genezake, lehenengoak, hau da, industria iraultzak, herrialdeen arteko desparekotasuna handitu baitzuen, mendebaldeko herrialdeak askoz arinago garatu ziren eta. Iraultza teknologikoak, bere aldetik, herrialdeen barneko desparekotasun ekonomikoa areagotu zuen, garai horretarako jada, Txina edo India bezalako herrialde gainpopulatuek Europa eta Ipar Ameriketako teknologia asko garatu zituztelako.

Autore askoren arabera, aberastasunaren zein diru sarreren joera metatzaileak edo birbanatzaileak arrazoi politikoaren mende daude, arrazoi ekonomiko hutsen mende egon beharrean. Hori dela eta, arrazoi edo erabaki politikoak dira ondoren errentaren zein aberastasunaren banaketan eragina izango duten konbergentzia edo dibergentzia indarrak aktibatuko dituztenak. Mendebaldeko mundu kapitalistan, kapitalismo demokratikoko sistema batean bizi garela ulertzen den arren, hori baieztatzea ezinezkoa da, sistema bera oztopatzen duten bi faktore baitaude. Faktore horiek, Estatu Batuetan

¹¹³ *Ibidem.*, 52,53,54.or.

¹¹⁴ WEBER, M. (1922). *Economia y Sociedad*. 675.or.

nabarmena den plutokrazia, hau da, sistema osoa aberatsenen mende egotearen fenomenoa, eta Europako alderdi nazionalista eta populisten agerpena dira. Horiek, aberastasunaren banaketan kalte izugarriak sortzen dituzte, lehen kasuan, enpresa eta familia boteretsu horiek estatua beren nahietara eta onuretara bideratzeko duten boterea aprobetxatzen dutelako, eta bigarrenean, gobernuek inmigrazioaren aurkako politikak hartzen dituztelako, askori, beren herrialdeetatik kanpo bizitza hobea bilatzeari uko eginez.


Indar dibergenteak edo konbergenteak erabaki politikoen mende daude, lehen aipatu dugun bezala, eta sakonki aztertu ondoren, esan daiteke, konbergentzia indar handienetako bat gerra edo gatazka armatua dela. Gerrak daukan konbergentzia alderdi hori, materialaren suntsipenean, fenomeno inflazionistetan, langabeziaren murrizketan edo aberastasunaren birbanaketaren alde egiten duten gobernu politika ezberdinetan oinarritzen da. Analisi akademiko eta enpirikoaren bitartez, gerrek desberdintasuna murrizten dutela baieztatu ahal izan dugu, hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea, gerrak oso ezberdinak direla beraien artean, eta edozein gerra ez dela gai eragin birbanatzaile sakonik eragiteko, aipatutako oinarri horiek edozein gerretan ikusten ez baitira.

Azterketa honetan, hipotesi akademikoak, lehen eta bigarren mundu gerretako datuetan oinarritu ditugu. Gerra hauetan, mundu mailako potentzia ekonomiko nagusiak borrokatu ziren haien artean, hala nola, Estatu Batuak, Japonia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua edo Errusia bera. Hala ere, gerra hotza hasi zenetik gaur egunera arte, bizi izan diren gatazka armatu guztiak hauekiko hirugarren herrialdeetan gertatu izan dira, adibidez, Korear penintsulan, Vietnamen, Ekialde Hurbilean edo Ekialdeko Europan. Lurralde guzti hauek, potentzia ekonomiko eta militar handien material beliko ezberdinak probatzeko guda zelai gisa erabili izan dira. Izan ere, ia gerra guzti hauetan, alderdi bakoitza munduko potentzia batek babestua izan da, bai ekonomikoki zein militarki, eta beraz, Estatu Batuek, Errusiak edo Sobietar Batasunak, Txinak edo Europako beste herrialdeek, zeharka baino ez dute parte hartu.

Herrialde horien zeharkako parte hartzeak, gerraren ondorioz sortzen diren fenomeno edo indar konbergente asko ezabatzeaz gain, munduko ekonomia handienei etekinak ateratzea ahalbidetu die. Hori frogatzeko, munduko material belikoaren esportatzaile handienak nortzuk izan diren ikustea baino ez da egin behar.

Stockholmeko Bakerako Ikasketen Nazioarteko Institutuaren¹¹⁵ arabera, 2022an, hauek izan ziren mundu mailako material belikoaren esportatzaile nagusiak¹¹⁶:

2. Grafikoa: Material belikoaren esportatzaile nagusiak mundu mailan.



Pasquali (2022). Statista.

Beraz, beste herrialdeen lurraldean gertatzen diren gerrak, potentzia ekonomiko hauentzat onuragarriak izan daitezkeela baieztatu dezakegu, betiere oso gertuko aliatu batek zuzenean bertan parte hartzen ez badu. Hala ere, hirugarren mundu gerra baten egoeran jarriko bagina, non bi aldeetan munduko potentzia handienak, hala nola, Estatu Batuak eta Txina zein Errusia (edo biak), sartuko liritekeen, testuingurua desberdina izango litzateke. Erraldoi hauen arteko gerra batek, non bi alderdiek besteen azpiegiturak suntsitzeko behar adina tresna dituzten eta urteetan zehar luzatuko litzatekeen gerra bati eusteko gaitasuna duten, herrialdeen gastu publikoa handitzeko beharra ekarriko luke, eta horrek, aldi berean, fenomeno inflazionistak eragingo litzuzke. Litekeena da baita ere, ekonomia, gerra ekonomia huts batera bideratzea, aldi berean, langabezia murriztuko litzatekeelarik, ez hainbeste errekrutamenduagatik (giza kapitalak gero eta garrantzia gutxiago baitu guda zelaian), baizik eta material belikoaren ekoizpenaren igoeragatik. Gobernuak bere aldetik, erregulazio interbentzionistagoak

¹¹⁵ Stockholm International Peace Research Institute (SIPRI), 1966an Stockholm sortu zen nazioarteko institutu independente bat da, gatazka armatuak, armak, armen kontrola eta desarmaia ikertzen dituena. SIPRIk datuak, analisi zein gomendioak ematen dizkie interesatuei, haren misioa, segurtasun ezaren iturriak identifika eta uler ditzakeen mundua eratzea baita, bakeari eusteko asmoz. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.sipri.org/about>

¹¹⁶ PASQUALI, M. (2022). *Los mayores exportadores de armas del mundo*. Statista. <https://es.statista.com/grafico/24413/exportaciones-mundiales-de-armamento-por-pais/>

hartuko lituzkete, merkatu librearen aurka jardunez, eta herritar guztiei eragingo zizkieten zerga tasen igoerak biziko ziren, gastu guzti hori arintzen laguntzeko.

Laburbilduz, onargarria da sinestea eskala handiko gerrek, non munduko ekonomian eragiteko gai diren herrialdeek parte hartzen duten, desparekotasun ekonomikoa murriztu dezaketela. Gaur egun dauden armak, hiri osoak mapatik ezabatzeko bezain indartsuak eta izugarri garestiek, aberastasuna modu imajinaezinean birbanatzek gai izango lirateke. Bestalde, baieztatu daiteke hauek izan ahal direla bigarren mundu gerraz geroztik eskala handiko gerrarik ez izatearen arrazoia, haiek sortzen duten beldurra, sugarra ez pizteko disuasio perfektua baita. Hala ere, ez da inondik inora ere onargarria munduko indar militar handienek, Vietnam, Korea edo Ukraina bezalako herrialde zaugarriak, haien ikastetxeko jolastoki bezala erabiltzea.

8. BIBLIOGRAFIA

Doktrina

a) Liburu eta Monografiak

- BROADBERRY, Stephen; HOWLETT, Peter. (2002). *Blood, Sweat and Tears: British Mobilisation For World War II. A World at Total War*. Cambridge (Britania Handia): Cambridge University Press.
- HAUNER, Thomas; MILANOVIC, Branko; NAIDU, Suresh. (2017). *Inequality, Foreign Investment and Imperialism*. Stone Center Working Paper. New York: Stone Center on Socio-Economic Inequality.
- HIGGS, Robert. (1992). *Wartime Prosperity? A Reassessment of the U.S. Economy in the 1940s*. Cambridge (Britania Handia): Cambridge University Press.
- HOBSON, John A. (1902). *Imperialism: A study*. New York, James Pott & Co.
- “Lenin” ULIANOV, Vladimir Ilich. (1916). *Imperialism, The Highest Stage of Capitalism. A Popular Outline*. Lenin’s Selected Works Vol. 1. Mosku: Progress Publishers.
- LUXEMBURG, Rosa. (1913). *The Accumulation of Capital*. (Edited by Dr. W. Stark) Rare Masterpieces of Philosophy and Science. Britania Handia: Routledge and Kegan Paul Ltd.
- MILANOVIC, Branko. (2017). *Desigualdad mundial. Un nuevo enfoque para la era de la globalización*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.
- PIKETTY, Thomas. (2014). *El Capital en el siglo XXI*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.
- SCHEIDEL, Walter. (2018). *El gran nivelador*. Bartzelona: Editorial Crítica.
- WALTON, Gary M; ROCKOFF, Hugh. (2010). *History of the American Economy*. South-Western, 11th ed. Ameriketako Estatu Batuak: Cengage Learning.
- WEBER, Max. (1922). *Economia y Sociedad*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.

b) Aldizkari espezializatuen artikuloak

- ALFANI, Guido. (2023). *Inequality in History: A long run view*. Stone Center Working Paper Series, No. 74. New York: Stone Center on Socio-Economic Inequality.
- BANK, Steven A.; STARK, Kirk J.; THORNDIKE, Joseph J. (2008). *War and taxes*. Law-Econ Research Paper No. 08-10. Los Angeles: UCLA School of Law.
- BRUN, Lidia; GONZÁLEZ, Ignacio. (2022). *Crecimiento económico y desigualdad: viejas y nuevas teorías, e implicaciones políticas*. *Ekonomiaz, ekonomiari buruzko euskal aldizkaria*, Vol. 101. Euskadi: Eusko Jaurlaritza.
- CAVERO, Teresa. (2014). *Desigualdad y fiscalidad van de la mano*. *Razón y Fe*, 270 (1391). Comillas: Catedra Hana y Francisco José Ayala de Ciencia, Tecnología y Religión.
- CHANCEL, Lucas. (2022). *World Inequality Report 2022*. Paris: World Inequality Lab.
- CUMMINS, Neil. (2021). *The Hidden Wealth of English Dynasties, 1892-2016*. *The Economic History Review*, Vol. 75. Londres: The Economic History Society.
- DENMAN, James; MCDONALD, Paul. (1996). *Unemployment statistics from 1881 to the present day*. Labour Market Trends.
- DREIER, Peter. (1982). *The Position of the Press in the U.S Power*. *Social Problems*, Vol 29. Oxford: Oxford University Press.
- EARLEY, James; LACY, William S. B. (d.g). *British Wartime Control of Prices*. *Law and Contemporary Problems* Vol. 9. Durham: Duke University School of Law.
- FURMAN, Jason; STIGLITZ, Joseph E. (d.g). *Economic consequences of income inequality*. Proceedings - Economic Policy Symposium - Jackson Hole. Kansas City: Federal Reserve Bank of Kansas City.
- GEORGESCU, Iuliana. (d.g) *La valoración en condiciones de inflación*. *Anales de estudios económicos y empresariales*. Valladolid: Universidad de Valladolid.
- KENNEDY, John. (2022). *Yes, They Were Socialists: How the Nazis Waged War on Private Property*. Auburn: Mises Institute.
<https://mises.org/wire/yes-they-were-socialists-how-nazis-waged-war-private-property>

- MASON, Joshua William. (2017, abenduak 4). The Economy During Wartime. Dissent Magazine. Pennsylvania: University of Pennsylvania Press. <https://www.dissentmagazine.org/article/second-world-war-economy-mark-wilson-destructive-creation-review/>
- MOLL, Benjamin. (2021). Uneven Growth: Automation's impact on income and wealth inequality. *Econometrica*, Vol 90, No.6. Cleveland: The Econometric Society.
- MORCK, Randall; NAKAMURA, Masao. (2003). Been there, done that. The history of corporate ownership in Japan. Finance Working Paper No. 20/2003, Sauder School of Business Working Paper. Vancouver: University of British Columbia.
- MORIGUCHI, Chiaki; SAEZ, Emmanuel. (d.g). The evolution of income concentration in Japan, 1886-2005. *The Review of Economics and Statistics*. Cambridge (AEB): Harvard University's Kennedy School of Government.
- NUDELSMAN, Susana. (2022). Global Inequality in the current era. *Ensayos de Economía*, 32. Medellín: Universidad Nacional de Colombia.
- PIGOU, Arthur Cecil. (1918). A special levy to discharge War Debt. *The Economic Journal*, 28. Londres: Royal Economic Society.
- ROLFE, Sidney E. (1952). Manpower Allocation in Great Britain During World War II. *ILR Review*, Cornell University, ILR School, Vol 5. Ithaca: Cornell University.
- SACHS, Jeffrey D. (1989). Conflicto social y políticas populistas en América Latina. *Estudios Económicos*, Vol 5. México DF: El Colegio de México.
- SCHEVE, Kenneth; STASAVAGE, David. (2011). Democracy, War and Wealth. Lessons from two centuries of inheritance taxation. *American Political Science Review*, Vol 106. Cambridge (Britania Handia): Cambridge University Press.
- SEGOVIA, Ana Isabel; QUIRÓS, Fernando. (2006). Plutocracia y corporaciones de medios en los Estados Unidos. *Cuadernos de Información y Comunicación*, Vol 11. Madrid: Universidad Complutense de Madrid.
- SERRANO, Jose María. (2017). Crisis económica y populismos. *Cuadernos de Círculo Cívico de Opinión*. Madrid: Círculo Cívico de Opinión.
- SUBIRÁ, Gastón. (2005). Bonos e hiperinflaciones en Europa entre 1914-1950. *Invenio: Revista de Investigación académica*, N. 15. Rosario: Universidad del Centro Educativo Latinoamericano.

- SZYDLIK, Marc. (2004). Inheritance and Inequality: Theoretical Reasoning and Empirical Evidence. *European Sociological Review*, Vol 20. Oxford: Oxford University Press.
- TEMIN, Peter. (1990). Soviet and Nazi Economic Planning in the 1930s. *The Economic History Review*, New Series, Vol. 44. Londres: The Economic History Society.

c) Bestelako iturriak

- Acnur. (2023). *¿Qué es la desigualdad económica y por qué se produce?*. https://eacnur.org/es/blog/desigualdad-economica-que-es-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst
- BASALLO, Alfonso. (2023). “La globalización ha permitido que se reduzca la desigualdad”, afirma el economista Fernando Fernández. *Nueva Revista*. <https://www.nuevarevista.net/la-globalizacion-ha-permitido-que-se-reduzca-la-d-esigualdad-en-el-mundo-afirma-el-economista-fernando-fernandez/>
- MONTAGUT, Eduardo. (2014). *Economía y empleo en la Primera Guerra Mundial*. Nueva Tribuna. <https://www.nuevatribuna.es/articulo/cultura---ocio/economia-y-empleo-primera-guerra-mundial/20140507183924103261.html>
- PASQUALI, Marina. (2022). *Los mayores exportadores de armas del mundo*. Statista. <https://es.statista.com/grafico/24413/exportaciones-mundiales-de-armamento-por-pais/>
- SADURNÍ, Josep Maria. (2023). *Los Muertos que causó la Primera Guerra Mundial*. National Geographic. https://historia.nationalgeographic.com.es/a/muertos-que-causo-primera-guerra-mundial_18389
- TASSAVA, Cristopher J. (d.g). *The American economy during World War II*. EH.net. <https://eh.net/encyclopedia/the-american-economy-during-world-war-ii/>
- LOZADA, Carlos. (d.g). *The Economics of World War I*. NBER. <https://www.nber.org/digest/jan05/economics-world-war-i>
- *The Napoleonic Wars*. (2024). Encyclopedia Britannica. <https://www.britannica.com/place/United-Kingdom/The-Napoleonic-Wars>

- Worldwide Deaths in World War II | The National WWII Museum | New Orleans. (s. f.). The National WWII Museum | New Orleans. <https://www.nationalww2museum.org/students-teachers/student-resources/research-starters/research-starters-worldwide-deaths-world-war>